




32

LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX

Munduko desberdintasunak, gora ala behera?
Munduko errentaren banaketa XX. mendean

Bob Sutcliffe



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



¿Un mundo más o menos desigual?
Distribución de la renta mundial en el siglo XX

Munduko desberdintasunak, gora ala behera?
Munduko errentaren banaketa XX. mendean

Bob Sutcliffe

Bob Sutcliffe es profesor del Departamento de Economía Aplicada I,
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, e inves-
tigador de Hegoa.

Comité Editorial:

Jokin Alberdi
Efrén Arreskurrinaga
Eduardo Bidaurreazaga
Alfonso Dubois
Pedro Ibarra
Karlos Pérez de Armiño
Bob Sutcliffe

HEGOA

Facultad de Ciencias Económicas
Avenida Lehendakari Aguirre, 83
48015 BILBAO
Tfno.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40
Email: hegoa@bs.ehu.es • <http://www.ehu.es/hegoa>

Manuel Iradier, 6 bajo
Tfno. y fax.: 945 13 15 87
Email: hegoavitoria@sarenet.es
01005 VITORIA-GASTEIZ

¿Un mundo más o menos desigual?
Distribución de la renta mundial en el siglo XX
Munduko desberdintasunak, gora ala behera?
Munduko errentaren banaketa XX. mendean

Bob Sutcliffe
Cuadernos de Trabajo de Hegoa
Número 32
Octubre 2002 (Edición revisada)

D.L.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962
Traducción inglés-euskera: Labayru Ikastegia
Impresión: LANKOPI, S.A.
Diseño y Maquetación: Marra, S.L.

Edukia

1. Pobre eta aberatsei buruzko froga partziala	51
2. Zer neurtu: neurri integralak versus taldeen ratioak	55
3. Nola konparatu errentak: truke-tasak versus erosteko ahalmenaren parekotasuna	57
4. Erostea ahalmenaren parekotasunaren errentari buruzko datuen iturriak	61
5. Herrialde arteko banaketa versus banaketa globala	65
6. Banaketari buruzko datuen iturriak	67
7. Herrialde arteko azterketak konparatuta	69
8. Azterketa globalak konparatuta	75
9. Kalkulu gehigarri bi, 1980-2000	79
10. Desagregatutako neurri gehiago	83
11. Adostasunak eta desadostasunak	85
12. Eztabaidaren ironiak	87
Bibliografia	89
Erauskin oharra	91

1. Pobre eta aberatsei buruzko froga partziala

Sarritan aipatzen diren Munduko Bankuaren zifren arabera, munduko biztanleen ehuneko 56 pobrezia-lerroaren –2\$ egunean– azpitik bizi zen 1998an. Estimazio hori 1985 eta 1998. urteen artean egindako familia-azterketetan oinarrituta dago; erosteko ahalmenaren parekotasunaren 1993ko prezioak erabili ziren emaitzak konparatzeko, eta zifrak kontsumo-zifra agregatuen arabera eguneratu. Horrek esan nahi du errentaren banaketa desberdinagoa duten herrialdeetan metodo horrek gutxietsi egingo duela pertsona pobreen kopurua (eta alderantziz). Azken kalkuluen arabera, bai pobrezia-eraren bai muturreko pobrezia-eraren (\$1 egunean) tasek behera egin dute 1987-1998 urteen bitartean (ehuneko 61etik ehuneko 56ra, eta ehuneko 28tik ehuneko 23ra, hurrenez hurren), baina, epe horretan, kalkulatu berdinaren arabera, hazi egin da pertsona pobreen kopuru absolutua: gutxi gorabehera 260 milioi gehiago dira (Munduko Bankua 2001). Bankuaren kalkuluek frogatzen badute ere pobretasuna arau dela ia munduko biztanleen erdiarentzat, zaila da kalkuluek argitaratuta dauden bezala erabiltzea. Hain zuzen ere, ez dutelako errenten kalkulurik ematen, bakarrik errenta-maila jakin baten azpitik bizi diren pertsona-kopuruei buruzkoak, eta ez dutelako inolako informaziorik ematen pobreak ez diren errentei buruz. Dena den, kalkuluek horiek lortzeko erabilitako familia-azterketen datuek, artikuluen honetan geroago ikusiko denez, rol nagusia dute desberdintasunen mundu mailako estimazio kuantitatiboak lortzeko orduan.

Gutxiago dakigu oso aberatsak direnei eta horien errentei buruz. Hori, hein batean, beren aberastasuna ezkutatzeko gai direlako da, eta beste hein batean, muturreko aberastasuna aztertzeko baliabide gutxiago erabiltzen delako, ez baita sozialki patologikotzat hartzen. Zenbait herrialdetan, dena den, egin izan dira aberatsen errenta erlatiboari buruzko azterketak. Estatu Batuetan, esaterako, 1960 eta 1999. urteen artean korporazio handietako zuzendari exekutibo nagusien batez besteko ordainsari erreala 11 bider hazi zela kalkulatu da, eta benetako produkzioko langileenak, aldiz, ia ez zuen aldaketarik izan (Sutcliffe 2001, EPIren web guneko datuetatik aterata). Forbes aldizkariak eta beste argitalpen batzuek aldian-aldian munduko oso aberatsen zerrenda kaleratzen dute, eta finantza-konpainia talde bat orain dela gutxi hasi da egiten urteroko *World Wealth Report* (Munduko aberastasunaren txostena) (Merrill Lynch and Cap Gemini Ernst & Young 2002). Txosten horrek kalkulatuak diren arabe-
ra, 2001. urtean munduan 7,1 milioi pertsona zeuden milioi bat dolarretik gorako aktiboekin (aktibo garbi garaiko gizabanakoak, “high net-worth individuals” edo HNWI) eta horiek 26,2 trilioi dolar zituztela aktibotan, baina ez du horien errenten kalkulurik eskaintzen. Informazio horrek pobreen gainean dauden datuek baino are gutxiago laguntzen du errentaren mundu osoko banaketa kalkulatzeko.

Haatik, informazio hain ezberdina batera jartzerakoan, puzzleko pieza batzuk baino ez badira ere, muturrekoa


¹ Eskerrak Andrew Glyn-i txosten honi egindako komentario lagungarri ugariengatik.

den eta hazkorra izan daitekeen desberdintasuna iradokitzen da. Horrelako egitateek sinesmen ia unibertsala sorrarazi dute kazetari eta statu quo kritikatzen duten kritiko politikoen artean, alegia, azken aldian (batez ere globalizazio neoliberalesko urteetan, esaterako, 1980tik aurrera) munduko desberdintasuna arin ari dela hazten, eta aurretik ikusi izan ez diren mailak jadetsi dituela. Baina, aldi berean, eta salbuespen gutxiarekin, arazo horri buruzko azterketa kuantitatiboak egin dituzten ekonomista akademiko gehienek iritzia da kontrakoa gertatu dela, eta azken hamarkadetan munduko desberdintasuna gutxitu egin dela. Iritzien arteko ezberdintasuna zertan dago oinarrituta, ez-ulertzean, ikuspuntu kontzeptual ezberdinetan edo egitateei eta horiek interpretatzeko moduei buruzko ezberdintasunetan? Artikulu honek arazo horiek argitu nahi ditu, eta horretarako, zifrei, horien mota eta iturriei begiratu die, eta ondoren, ikusi (nahi du) zenbateraino diren ezberdintasun horiek itxurakoak edo errealak.


Beste informazio mota orokorrago batek ere itxura hori ematen lagundu du, hain zuzen ere, munduko desberdintasuna hazi egin dela eta hazten ari dela: informazio mota hori banakako herrialdeen edo herrialde-taldearen *per capita* errenta edo produktuaren kalkulua dira. Ondoko hiru grafikoek *per capita* BPGaren maila erakusten dute, hori neurtzeko erosteko ahalmenaren parekotasuna erabilita (horren esangura geroago azter-

tuko da), kontinenteentzat edo kontinente zatientzat, eta munduari dagokion zifrarekin alderatuta: 1. irudia, Angus Maddisonen orain dela gutxi egindako lanetik ondorioztatuta, 1820tik 1998rako da (grafikoaren eskala 1950etik aurrera zabaldu egiten da); eta 2. irudiak (Munduko Bankuaren estatistikak erabilita) 1980. urtetik 2000. urte bitarterako xehetasun gehiago ematen ditu. Jakina, kontinenteen berdintasun eta desberdintasun ereduetan hainbat fase egon dira: 1900. urtea arte Europak mundu mailarekin alderatuta zuen hazkundera ez zen Ipar Amerikarena bezain azkarra; hegoaldeko Europa eta Latinoamerika ia maila erlatibo berean zeuden eta munduko beste eskualdeek txarrera egin zuten. 1900etik 1950era Mendebaldeko Offshootek (AEB, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria) aurrera egiten jarraitu zuten, Europaren mendebalde eta hegoaldeak atzera egin zuten, eta Latinoamerika eta ekialdeko Europak gora egin zuten. Ondoren, 1950. urtearen ondoren, mendebaldeko eta hegoaldeko Europak, eta gero Asiak, hazkunde arina izan zuten, aldi berean Latinoamerikak, eta gero are modu larriagoan ekialdeko Europak, atzera egin zuten. Ipar Amerikak erlatiboki atzera egin zuen beste herrialde batzuk gerratik errekuaratzen ziren bitartean, baina 1970eko hamarkadaren erdialdetik (ekonomia-krisialdiari buruz asko hitz egin den arren) berriz ere erlatiboki hazteari ekin dio, eta mendea maximo historikoarekin amaitu du.

1a irudia. Errenta-mailak munduko batez bestekoarekin alderatuta 1820-1998



Iturria: Autorearen kalkulua Maddison 2001ean oinarrituta.



Iturria: Autorearen kalkuluak Munduko Bankuaren, *World Development Indicators* 2002, online edizioan oinarrituta

Aldatu ez dena da mende bitan Afrikak duen posizioak, munduarekin alderatuta, txarrera egin duela. Mendebaldeko Offshooten (Ipar Amerika eta Australasia) *per capita* errentaren ratioa 1820an Afrikakoa baino 2,6 aldiz handiagoa zela kalkulatu da; mende bi geroago, etengabeko beherakadaren ondoren, 1980an, 12 aldiz handiagoa zen eta 1998rako ia 20 aldiz handiagoa. Ez da harritzekoa desberdintasunaren gorakada izateari buruzko pertzepzio komuna egotea. Ezta okerrekoa ere, zifra horiek nabarmen iradokitzen baitute munduko desberdintasuna orokorrean hazi egin dela, eta kontinente edo herrialde zehatz batzuen artean berdintasunak eman direla.

Lan hau ez da desberdintasun zehatz horiei buruzkoa: bere ardura, oster, ia erabilgarri dauden ekonomia-estatistikak erabilita munduko desberdintasun mailaren balorazio orokorra egin daitekeen ikustea da, eta behin betiko esan hori nola aldatu den. Beharrezkoa da oraintsu egindako kalkuluen alderaketa sistematikoa, gero eta gehiago aztertzen den arlorako gida modukoa izan dadin, inizatuta ez dagoen irakurle bati, nahasmen handia sortu behar

baitio 1 kutxako adierazpenetako batzuk ikustek. Horietako gehienak azterketa akademikoetatik edo orokorrean fidagarritzat jotako nazioarteko erakundeen iturrietatik daude hartuta.

Zerrenda bi horien itxurazko funtsik ezak hiru arrazoi ditu: berdintasun eta desberdintasunari buruzko kontzeptu ezberdinak erabiltzea; kontzeptu horiek neurtzeko erabili beharreko modua; eta hainbat iturritatik lortutako datuen funtsik eza. Sasitza horren guztiaren arrazoa argitzeko esperantzarekin, lan honek proposatzen du metodo, neurketa eta datuek desberdintasun globalaren mugimendua baloratzeko dituzten arazoak zein diren azaltzea. Gero, existitzen diren azterketetako asko ikertu eta konparatuko ditu eta horri bere kalkulu osagarriak gehituko dizkio, ezberdintasunak argitu eta ikerketarako ildo berriak emateko esperantzarekin. Amaitzeko, eztabaidaren esanahi ideologiko eta politikoari buruzko komentarioa egingo du.

1. kutxa. Konbergentzia edo dibergentzia: azken iritzietako batzuk

“Ebidentziak nabarmen iradokitzen du errentaren desberdintasun globala hazi egin dela azken hogeitaz urteetan. Aldaketa hori neurtzeko estandarrek eta horretarako arrazoiak zalantzan jartzen badira ere, joera argia da.” Robert Wade (“Inequality of World Incomes: What Should be Done?”).

“Globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurrerakada itzela... desberdintasunaren hazkunde harrigarriarekin batera gertatu da...” Ignacio Ramonet (*Le Monde Diplomatique*, 1998ko maiatza).

“... pobrezia eta desberdintasunaren hazkundera eta globalizazioaren zabalkundera elkarren ondoan gertatu dira. Kontrasteak dituen munduan, herrialde aberatsen eta pobreen arteko eta pertsona aberatsen eta pobreen arteko zuloak zabaltzen jarraitzen du.” Kevin Watkins (Background paper for UNDP, *Human Development Report* 1999).

“Herrialde pobreen eta aberatsen errenten arteko zuloak zabaltzen jarraitu du. 1960an herrialde aberatsen bizi zen munduko biztanleriaren %20aren errenta %20 pobreenarena baino 30 aldiz handiagoa zen, 1997an 74 bider handiagoa. Hori mende biko joeraren jarraipena da.” (UNDP, *Human Development Report* 1999, 1. kap., 36. or.).

“1960an 20 herrialde aberatsen *per capita* BPGa 20 herrialde pobreena baino 18 aldiz handiagoa zen. 1995erako, tarte hori zabaltzen egin zen eta 37 aldiz handiagoa zen, sarritan dibergentzia deitu zaion fenomeno. Zifra horiek erakusten dute herrialde arteko desberdintasunak hazkunde latza izan duela azken 40 urteetan.” (Munduko Bankua, *World Development Report* 2000/2001, 3. kap., 51. or.).

“Herrialde aberats eta pobreen arteko tarte inoiz baino handiagoa da gaur egun”, Richard Jolly, *Global Inequality, Wider Angle*, 1999ko abendua.

“...mundu osoko dibergentzia *per capita* BPGean etengabe hazi da mendearen hasieratik 1980ko hamarkadako lehen urteetara arte. Dena den, 1980 inguruan joera hori erabat aldatu zen. Azken urteetan Indiak eta, bereziki, Txinak izan dituzten hazkunde tasa handiagoei nola baitaiko konbergentzia ekarri dute.” (A. Boltho eta G. Toniolo, “The Assessment: The Twentieth Century: Achievements, Failures, Lessons”, *Oxford Review of Economic Policy*, 15 lib., 4 zk.).

“Grosso modo, munduko desberdintasunaren gorengo puntua XX. mendeko erdialdean izan zen, mende oso batean etengabeko dibergentzia izan ondoren. Hortik aurrera, eta bilakaera itzel horrekin konparatuta, azken 50 urteetan behatutako aldaketek txikiak ematen dute eta egoera egonkortzen dagoen itxura du.” (F. Bourguignon eta Christian Morrisson, “Inequality among world citizens: 1820 1990”, zirriborroa, 2001eko otsaila).

“...errentaren desberdintasun globalaren bederatzi neurri kalkulatu genituen. Horiek guztiek irudi bera ematen dute: desberdintasuna asko jaitsi zen azken bi hamarkadetan.” (Xavier Sala i Martin, *The World Distribution of Income* (herrialdeko banaketa indibidualekin kalkulata), *NBER Working Paper* 8933).

“Nazioarteko desberdintasuna modu egokian neurtzen bada erosteko ahalmenaren parekotasunean oinarrituta (prezio-maila ezberdinetarako doitu), kanbio-tasa ofizialak erabili beharrean, eta herrialdeak beren biztanleriaren arabera haztatzen direnean, nazioarteko desberdintasunaren neurri fidagarriak erakusten dute errenten konbergentzia gertatu dela 60ko hamarkadako azken aldetik aurrera.” (Arne Melchior, *Global Income Inequality: beliefs, facts and unresolved issues*, *World Economics*, 2. lib., 3. zk. 2001eko uztaila-iraila).

“...ebidentziak iradokitzen du mundu osoko desberdintasunak azken urteetan izandako hazkundera erlatiboki txikia dela 19. mendean izandako hazkunde askoz handiagoekin alderatuta”, Munduko Bankua, *World Development Report* 2000/2001.

2. Zer neurtu: neurri integralak versus taldeen ratioak

Munduko banaketa (edo edozein banaketa) aztertze bide komun bi dira: banaketaren mugak konparatzea (aberatsen errenten eta pobreen errenten arteko ratioa), edo datu guztiak erabili eta banaketaren neurri integrala sortzea. Neurriotatik modu nabarmenean gehien erabiltzen dena Gini koefizientea da. Metodo bata zein bestea erabil daiteke kalkulatzeko, bai herrialdeen arteko ezberdintasunak bakarrik kontuan hartzen dituen edozein banaketa (hemen, herrialde arteko banaketa deituko zaio horri), baita herrialdeen barruko diferentziak kontuan hartzen dituen ere (hemen, banaketa globala deituko zaio horri). Horrek 1. taulan ikus daitezkeen munduko banaketarako dauden lau metodo posibleak ematen dizkigu.

1. taula: Munduko banaketaren hainbat kontzeptu		
	Neurri integrala	Muturren ratioa
Herrialde artekoa	A	C
Globala	B	D

Neurri integrala muturren ratioa baino hobea da? Muturren ratioak duen abantaila da askoz modu intuitiboagoan uler daitekeela. Neurri integralak, aldiz, esaterako Gini koefizientea, abstraktuagoak dira eta azalpen gehiago behar dute. Bestalde, muturren ratioak bakarrik konparatzen ditu erabilgarri dauden datuen parte bi; beraz, onenean ere, banaketaren ikuspegi mugatua eman dezake. Muturren ratioaren neurketak, zenbait kasutan, erabilgarri dauden datu guztiak erabil ditzake (adibidez, biztanleriaren goiko erdiaren eta beheko erdiaren arteko ratioa neurtzerakoan, batzuetan Robin Hood indizea deritzona); baina kasu horrek ere ez du zifra bakan biren arteko erlazioa besterik ematen. Bestalde, muturren ratioa gizarte-justizia mailaren hurbilketa hobea izan daiteke neurri integralak baino. Puntu hori argitzeko, adibide bat erabil daiteke: suposatuz ondoko *per capita* errentaren mailak behatzen ditugula biztanleria beraren kintiletan 1 eta 2 urteetan.

2. taula: Banaketa biren adibide hipotetikoa					
	I. kintila	II. kintila	III. kintila	IV. kintila	V. kintila
1 banaketa	1	1	1	1	15
2 banaketa	1	16	16	16	16

Banaketa bi horietako zein da berdintasunezkoagoa? Adibide honetan, zeina, ikusiko dugun bezala, ez dagoen oso urrun munduko errealitateko zenbait aldetatik, neurketa mota biek erantzun guztiz ezberdinak ematen dituzte. 2. banaketan muturren ratioa handiagoa da (gorengoa zati beherengo kintila), 1. banaketa baino desberdintasun gehiago, beraz (16 eta 1, bestea 15 eta 1 den bitartean). Gini koefizienteak, dena den, erorketa ikusgarria erakusten du desberdintasunean, 0,589tik 0,185era jaisten baita.

Eztabaida handia egon liteke banaketa bietako zeinek erakusten duen gizarte-justizia gehiago auziaren inguruan. Baina gutxienez eztabaidagarria da biztanleriaren lau bosten aberats eta bosten bat pobre dituen gizarte moralki txarragoa dela, lau bosten pobre eta bosten bat

aberats dituen baina. Horren zergatia da txarragoa dela ugaritasun orokorra dagoenean gutxiengo bat baztertzea, pobrezia nagusi denean gutxiengo batek aberastasunak izatea baino, soilik lehen kasuan bihur baitaiteke mundu guztia eroso birbanaketa kopuru txikia eginda. Beste era batera esanda, muturreko pobrezia bidegabekoagotzat har daiteke orokorrean aberatsa den gizartean, orokorrean pobrea denean baino.

Puntu hori ez da formalitate hutsa; oster, berandua go ikusiko dugun bezala, egokia da errentaren banaketak azken mendean izandako ibilbideari buruzko ondorioak interpretatzeko. Horrek iradokitzen du zentzuzkoa litzatekeela neurri bietara begiratzea berdintasunean eta desberdintasunean izandako aldaketak juzgatzearren.

3. Nola konparatu errentak: truke-tasak versus erosteko ahalmenaren parekotasuna

Munduko errentaren desberdintasunarekin gertatu izan denaren inguruan izandako desadostasun eta nahastearen zati handi baten zergatia da herrialdeen errentak konparatzeko, normalean, modu ezberdin bi erabiltzen direla –kanbio-tasaren metodoa eta erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoa–. Biek errenta-zifra berak hartzen dituzte kontuan, nazioko kontuetatik, familia-azterketatik edo beste iturri batzuetatik hartuta. Horiek, jakina, lehenengo eta behin, herrialde bakoitzeko diruan daude adierazita. Herrialdeak konparatzeko, eta mundu osorako kalkuluak egiteko, diru komuna bihurtu behar dira. Hori egiteko ohiko modua dolarretara bihurtzea izan da, indarrean dagoen kanbio-tasa erabilia. Horrek daukan arazoa da, ia mundu guztiak onartzen duen bezala, kanbio-tasek, oso maiz, ezin dutela erosteko ahalmenaren baliokidetasuna islatu. Herrialde bateko pertsona batek beste batera joan eta dirua bihurtzerakoan, bere erosteko ahalmena handitu edo txikitu egin dela ikusiko du sarritan. Kanbio-tasak errentaren zifrak bihurtzen dituenek, konparaketa faltsuak ematen ditu. Proposatutako irtenbide orokorra erosteko ahalmenaren parekotasuna erabiltzea da, hots, hainbat herrialdetako prezioen gainean egindako azterketa sakonean oinarritutako kalkulua: herrialde

bateko diru-kopuru batek beste moneta batera bihurtzean duen benetako baliokidetasunaren azterketa. Praktikan, badirudi erosteko ahalmena azpiestimatzeko duen kanbio-tasa duten herrialdeak gehienbat herrialde pobreak direla, eta alderantzizko ezaugarria dutenak gehienbat herrialde aberatsak direla. Horrek esan nahi du kalkuluak erosteko ahalmenaren parekotasuna erabilia egiten direnean, gutxitu egiten dela herrialde aberats eta pobreen arteko desberdintasunaren neurri numerikoa. Printzipioz, dena den, hori bizi-estandar materialen arteko konparaketa da, eta kanbio-tasen bidez bihurtutako zifrak, aldiz, ez dira. Erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoa da, beraz, ekonomista gehienek, ia guztiek, bultzatzen duten metodoa. Horren bidez, herrialdeen (espazioan) errenta-mailak konpara daitezke, herrialde bakoitzean inflazioaren arabera doikuntzek denboran konpara daitezkeen zifra errealek ematen dituzten bezala. Espazio eta denborako konparagarritasuna da erosteko ahalmenaren parekotasunaren zifren –asko eta asko daude erabilgarri azken aldian– aurrerapen handia.

Metodoen arteko ezberdintasunak alde handiak sortzen ditu desberdintasunari buruzko kalkuluetan, 3. taulan ikus daitezkeen legez.

3. taula: Kalkulatutako munduko desberdintasuna 2000an		
Neurria	Erosteke ahalmenaren parekotasuna	kanbio-tasa
1. Herrialde arteko Gini koefizientea 2000 ppp (163 herrialde)	0.543	0.753
2. Herrialde arteko %5/%5 ratioa 2000	47.95	175.31
3. Herrialde arteko %10/%10 ratioa 2000	31.37	126.08
4. Herrialde arteko %20/%20 ratioa 2000	15.99	67.03
5. Herrialde arteko %50/%50 ratioa 2000	5.38	20.09

Iturriak: Munduko Bankua, *World Development Indicators 2002*, online edizioa. Kanbio-tasaren bihurtetako Munduko Bankuaren Atlas metodoa erabiltzen du (urtebetean batez bestekotutako kanbio-tasak erabilia).

Zifra horiek guztiak 163 herrialde beretan daude oinarrituta. Beraz, zutabe biek bakarrik erakusten dute errenta bihurtzeko erabilitako motak sorrarazitako diferentzia. Kanbio-tasaren bidez bihurtutako zifrak, erabiltzen direnak, Munduko Bankuak Atlas metodo moduan deskribatutako zifrak dira; metodo horretan erabiltzen den kanbio-tasa urteko batez bestekoa da, egun jakin bateko batez bestekoa baino. Zutabe biak konparatuta, agerikoa da kanbio-tasaren metodoak erosteko ahalmenaren metodoak baino desberdintasunaren neurri handiagoa ematen duela, deskribatu nahi duten errealitatea, jakina, berbera bada ere. Gini koefizientea berriz ere ia aurrekoaren erdia bezain handia da, eta muturren ratioak erakusten duen desberdintasunaren indizea erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoarena baino ia 4 aldiz handiagoa da. Gainera, 4. taulan ikusten den bezala, denboran zehar ikusita, metodo biek oso emaitza ezberdinak ematen dituzte. Orokorrean, azken bi hamarkadetan, kanbio-tasaren metodoaren arabera munduko desberdintasunak gora egin du, eta erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoaren arabera, aldiz, behera. Geroago, orokortze horri egindako zenbait salbuespen eta ñabar-dura eztabaidatuko dira, baina oraingoz, 4. taulako zifrek aurretik aipatutako 113 herrialdeetan (data bieta-rako datuak dituztenak) oinarritutako oso kalkulu sinplea erakusten dute arazoa argitzeko. Kanbio-tasan oinarritutako Gini koefizientea urte bietan handiagoa izateaz gain, gora egiten du 1980tik 2000ra, eta horrek desberdintasun handiagoa erakusten du; aldi berean, erosteko ahalmenaren parekotasunean oinarritutako Giniak behera egiten du, eta horrek berdintasun gehiago adierazten du. Funtsezko ezberdintasun horien erantzule bakarra bihurtetaren oinarrian dagoen ezberdintasuna da, datuak berberak baitira kasu bietan.

4. taula. Aldaketak Gini koefizientearen 1980-2000, konparaketarako kanbio-tasaren eta erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoak		
	Kanbio-tasa (Atlas)	Erosteke ahalmenaren parekotasuna (Munduko Bankua)
1980	0.7053	0.6137
2000	0.7449	0.5422

Iturria: Autorearen kalkuluak Munduko Bankuaren, *World Development Indicators 2002*, online edizioan oinarrituta; 113 herrialdeak berberak dira lau kalkuluetan.

Kanbio-tasaren zifrek ez dituzte nahitaez balio handi-goak ematen desberdintasunaren maila eta hazkundetarako. 3. eta 4. tauletako ezberdintasunetarako arrazoi nagusia da herrialde pobreetako kanbio-tasak azpibalaratu egin ohi direla atzerriko kanbio-merkatuetan, barneko erosteko ahalmenari dagokionez (turistek ondo ezagutzen duten fenomeno). Gainera, 1980tik 2000ra arteko urteetan gora egin zuen herrialde pobre askotan azpibalarazio erlatiboak, eta AEBetako diru oro-ahalmenduaren gainbalarazio erlatiboak ere goranzko joera izan zuen. Orain dela gutxi, hala ere, dolarraren nazioarteko balioak berriz ere izan duen beherakadak eta herrialde pobreagoetan debaluazioak izan duen abiadura geldoagoak zerbait lagundu du behatutako joerak aldatzen.

Desberdintasun-maila oso ezberdinak eta kontrako joerak ematen dituztenez, funtsezko garrantzia du, jakina, zein metodo den zuzena erabakitzeak. Badirudi guztiz argi dagoela bizi-estandarrek (eta, beraz, nazioarteko desberdintasunaren maila errealek) konparatzeko neurketa egokia, printzipioz, erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoak ematen

duela. Metodo horren oinarria errentak bihurtzea da, eta, horretarako, indize bat erabiliko du (ezkutuko kanbio-tasa baten itxurakoa), herrialdeetan salgai berberak dituzten prezio-mailen konparaketa zehaztuan oinarritutakoa. Horrela, ezabatu egiten da kanbio-tasen aldaketak munduko errentaren ageriko banaketan duen eragina, prezioen diferentziak denboran doitzeak daten arteko konparaketak erreal bihurtzen dituen bezalatsu. Beraz, printzipioz, erosteko ahalmenaren parekotasunaren zifrekin matrize bat egin daiteke, non herrialde bakoitzeko *per capita* errentak denboran duen zifra konpara daitekeen, bai bertikalki (denboran) bai horizontalki (espazioan); bestela esanda, zifrak denboran zein espazioan errealak dira. Desberdintasunaren neurketa bizi-estandarren benetako diferentziei buruzkoa denez, hori da, ziurrenik, prozedura egokia. Gai honi buruz idazten duten ia guztiek onartzen dute hori; benetan, orain dela gutxi izandako erosteko ahalmenaren parekotasunaren errentaren estimazioen biderketa izan da

posible egin duena munduko errentan dauden ezberdintasunen analisia gehitzea. Edozelan ere, zenbait autorek esaten dute printzipioz hobeak direla kanbio-tasan oinarritutako kalkuluak, autoreon arabera kanbio-tasa txikiak dituzten herrialdeek gutxiagotasuna jasaten dutelako nazioarteko botere ekonomikoari dagokionez, zeina asko baloratutako dibiseta gastatzeko duten trebetasunaren menpe dagoen. Argumentu horrek nolabaiteko meritua izan dezake herrialdeen nazioarteko botereari dagokionez, baina ez du bat ere ez bizi-estandarrean dagoen desberdintasunaren neurketari dagokionez. Munduko desberdintasuna neurtzeko kanbio-tasan oinarrituta egindako kalkuluak, dena den, ez daude argumentuotan oinarrituta, emaitza jakina sortzeko gurarian baino. Hori geroago aztertuko da, baina, bien bitartean, argi utzi behar da hemendik aurrera egindako eta txosten honetan aipatutako kalkulu guztiek erosteko ahalmenaren parekotasunaren metodoak erabiltzen dituztela. Metodo horiek, dena den, badituzte euren arazoak.

4. Errosteko ahalmenaren parekotasunaren errentari buruzko datuen iturriak

Errenten kalkulu guztiak, azken finean, baina ez zuze-nean, iturri beretik datoz: International Comparisons Program-etik, alegia. Nazio Batuen eta Pennsylvaniako Unibertsitateko Center For International Comparisons-en arteko aldi baterako elkarte da hori (xeheetasun gehiagorako ikusi <http://www.worldbank.org/data/icp>). Kalkuluak egiteko, herrialdeko dibisan dauden nazioko kontu konbentzionalak nazioarteko prezioetara bihurtzen dira; prezio horiek gaur egun 118 herrialdetan egiten diren prezio-azterketetan (hiru urterik behin berrikusita) daude oinarrituta. Ariketa horren xedea produktu eta zerbitzu baliokideek herrialdetik herrialdera dituzten prezio-aldaketak ezabatzea da, ondorioz, horien balioa herrialdeen artean konparagarria izan dadin.

Printzipioz, errosteko ahalmenaren parekotasunaren bihurtutako zifrak bizi-estandarretan dauden diferentzien isla hobeak badira ere, praktikan, errosteko ahalmenaren parekotasunaren kalkuluen hiru iturri banatu daude eta horiek ez dira inola ere berdinak. Horietako bat Munduko Bankuko datu-basekoa da –Munduko Garapenaren Adierazleak (World Development Indicators, WDI)–, bigarrena Penn World Tableseko azken bertsioa (seigarrena) –Heston, Summers eta Aten-ek

egina (PWT6)–, eta hirugarrena Angus Maddisonen OECDren babespean egindakoa (Maddison 2001).

Maddisonen eta Heston eta Summersen eta horien lankideen lanak *per capita* errentaren zifren (eta beste aldagai batzuen) serie jarraituak sortu ditu aspaldiko datetatik hasita, eta, printzipioz, espazioan eta denboran konparagarriak diren zifretan. Bada, lan horri esker, herrialde arteko banaketaren historiari buruzko eztabaida egin ahal izan da. Maddisonen datuak 1820an hasten dira herrialde batzuetarako eta orain dela gutxi 1998. urtera arte berrikusi dira herrialde gehienetarako. Heston eta Summersek gero eta herrialde gehiagorako egindako serieak, bestalde, 1950 eta 1998. urteen arteko tarte hartzen du. Munduko Bankuaren errosteko ahalmenaren parekotasunari buruzko datuak 1975ean hasi ziren.

Hiru kalkulu horiek guztiek World Comparisons Projectek egindako prezio-datuak erabiltzen badituzte ere, modu baten baino gehiagotan egokitzen dira eta, ondorioz, bakoitzaren kalkuluen arteko diferentzia handiak egon ohi dira. Ikusiko dugunez, diferentziak nahiko handiak dira munduko desberdintasunak oraintsu izan duen ibilbideari buruz ondorio ezberdinak ekartzeko.

Erosteke ahalmenaren parekotasunaren oinarritzko datuak aztertu dituen pertsona edo talde bakoitzak bere bitxikeriak gehitu dizkio. Nazioarteko kalkuluetan eragin handia izango duen kasu bakarra hartzearen, Txinakoa hartuko dugu: 1980 eta 1990. urteen bitartean Txinako *per capita* errenta erreala, erosteke ahalmenaren parekotasunaren bidez neurtuta, ehuneko 36 hazi zen Penn World Tablesen 5.6. bertsioaren arabera, ehuneko 85 Maddisonen 1995eko azterketaren arabera, eta ehuneko 70 Maddisonen 2001eko berrikusketaren arabera. Ezin da Munduko Garapenaren Adierazleen zifra konparagarriak eman, azken horren datuak prezio korranteetan baitaude. Munduko bigarren ekonomiari buruzko ezberdintasunak hain handiak direla ikusita, agerikoa da ondorio guztiak kontu handiz erabili behar direna. Posible denean, kalkulu ezberdinak probatu behar dira, errentari buruzko datuen bertsio bakoitzean lortutako ondorioen sendotasuna ikustearren. Hori egiten saiatu naiz ondoren egindako kalkulu guztietan.

5. taulak hiru iturriek egindako estimazioen arteko diferentzien zenbait xehetasun ematen ditu. Maddison 2001 eta PWT6rako hartu ditut 92 herrialdeak zeinentzat bi horiek kalkuluak dituzten, eta ia herrialde talde bera Munduko Garapenaren Adierazleentzat; hiruak ere konparagarriak izan daitezten, herrialde guztietako zifrak normalizatu egin dira AEBetako kalkuluaren proportzioan (Maddison 2001 eta PWT6ren oinarri-urteak ezberdinak direlako eta WDI prezio korranteetan dagoelako). Horien arteko konparaketa 5. taulan dago. Horrek erakusten dituen hiru iturrien arteko diferentziak nahiko handiak dira zifra horien erabilerari buruzko zalantzak sorrarazteko.

5. taula: <i>Per capita</i> BPGaren kalkuluen aldakortasuna, 1998		
	%10aren barruko %	ezberdintasunaren ibiltartea %
PWT6.1–Madd2001	45.7	62–291
Madd2001–WDI2002	34.4	36–326
PWT6.1–WDI2002	48.9	70–202

Iturria: Autorearen kalkulua Maddison 2001ean, Heston, Summers and Aten 2002an eta Munduko Bankua 2002an oinarrituta.

Kasu bakoitza ia 90 herrialderen 1998ko zifretan dago oinarrituta; konparazio bakoitzean erabilitako herrialdeak berberak dira konparatutako neurri bietan

Lehenengo zutabeak adierazten du aipatutako bigarren iturriko zein herrialdetako errentaren estimazio dauden aipatutako lehenengo iturriaren errentaren estimazioaren %10aren barruan (goitik edo behetik) (beraz, adibidez, Maddison 2001eko balioen ehuneko 45 bakarrik dago PWT balioen ehuneko 10aren barruan). Bigarrenak, berriz, bigarren aipatutako iturriko datuekin lortutako herrialdeko estimazioen multzoa lehenengoaren ehuneko gisa erakusten du (horrela, adibidez, Maddison 2001en balioak PWT balioen ehuneko 62aren eta ehuneko 291ren artekoak dira). Desadostasunok benetan ere oso handiak dira.

Hiru iturriek ematen dituzten Gini koefizientearen estimazioak hurrago daude, banakako herrialdeen *per capita* BPGaren estimazioen ezberdintasunen arabera uste daitekeena baino. Hori gertatzen da, hein batean, ezberdintasun handietako asko herrialde txiki eta pobreentzat direlako eta ezberdintasunetako zenbaitek elkar ezeztatzen dutelako. 6. taularen goiko erdiko zatiak hiru iturriek emandako Gini koefizienteak konparatzen ditu; horretarako, 92 herrialde berberak erabiltzen ditu PWT6 eta Maddison 2001erako eta ia berberak WDIrako. Gini koefizienteetan dauden ezberdintasunak nahiko txikiak dira errore-marjina arrazoigarrien artean egoteko. Hiruren Gini koefizienteak behera egiten du 1980tik 2000 arteko urteetan eta diferentziak ez dira oso handiak; esanguratsua da, ikusiko dugun bezala, Maddison 2001ek duela koefizientearen jaitsierarik txikiena. Kalkulua kasu bakoitzean herrialde talde berarekin egin beharrean, 1950 eta 1988. urteen artean estimazioak dituzten herrialde guztiekin eginez gero, ezberdintasunak nabarmenagoak dira. Eraitza taularen beheko erdiko aldean ikus daiteke. Bai PWT6k bai WDIk oraindik ere beheranzko Gini koefizientea dute (hau da, desberdintasunak behera egiten du), baina Maddison 2001ek ez du ia jaitsierarik erakusten. Kalkulu horiek datuen arteko ezberdintasunak erakusteko bakarrik egin dira hemen. Aurrerago ikusiko dugu ezberdintasuna esanguratsua dela munduko desberdintasunari buruzko ondorioak lortzeko.

Munduko desberdintasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX. mendean

Ia ez da azterketa estatistikorik behar gizakien artean desberdintasun material itzelak daudela frogatzeko. Desberdintasuna agerikoa da hiri nagusi gehienetako kaleetan dabilen edonorentzat, edo Angolako gosetearen irudietatik negozioetako edo futboleko transferrei buruzko albisteetara salto egiten duten albistegiak ikusten dituen edonorentzat. Artikulu honek emantzat jotzen du desberdintasun handiak daudela, baina desberdintasun hori neurtzeko egon daitezkeen eta erabiltzen diren bideak zein diren adierazten ditu, eta munduko desberdintasunak, azken mendean, eta, bereziki, 1980tik hona izan duen bilakaeraren frogak aztertzen ditu.

6. taula: 3 errenta iturrik emandako Gini koefizienteren konparaketa						
	PWT6.1		Maddison 2001		WDI 2002	
	Gini	herrialdeak	Gini	herrialdeak	Gini	herrialdeak
1980	0.582	92	0.587	92	0.618	87
1990	0.563	92	0.569	92	0.587	90
1998	0.523	92	0.539	92	0.542	90

Gehienezko herrialde kopurua

1950	0.523	53	0.551	198	n.a.	n.a.
1973	0.591	115	0.574	217	*0.612	*117
1990	0.564	134	0.569	219	0.577	161
1998	0.519	140	0.564	219	0.543	167

*1975erako zifrak

Iturria: Autorearen kalkuluak Heston, Summers and Aten 2001ean, Maddison 2001ean, eta Munduko Bankua 2002an oinarrituta.

Oharra: PWT6 eta WDI 2002ren kasuan, herrialde kopurua hazteak islatzen du gero eta herrialde gehiagori buruzko datuak daudela. Maddisonen kasuan, datuak herrialde berberetakoak dira, baina herrialdeon kopurua aldatu egiten da aldaketa politikoak medio (bat egiteak eta zatiketak).

5. Herrialde arteko banaketa versus banaketa globala

Aurreko atalean aipatutako emaitza guztien ageriko muga da bakarrik kalkulatzeko dutela herrialde arteko banaketa, baina horiek osorik hartuta (jakina, biztanleriaren arabera haztatuta). Ez dute kontuan hartzen herrialde barruko errenta-banaketa. Hori egitea mundu osoa unitate ekonomiko bakartzat hartzea bezalakoa da; nik kontzeptu horri banaketa globala deritzot (herrialde arteko banaketari kontrajarria). Agerikoa da munduko banaketaren inguruko azterketen xedea estimazio globalak lortzea izan behar dena eta ez herrialde artekoak. Oso zaila zaigu informazioan konfiantza izatea, horren arabera 1.200 milioi txinatarrek eta 280 milioi estatubatuarrek errenta identikoak jasotzen badi-tuzte. Gini koefizienteak beti dira handiagoak herrialde barruko banaketa kontuan hartzen denean. Txostenean, aurrerago, 35 herrialderi buruzko azterketa bat deskribatuko da, zeinentzat 2000. urtean herrialde arteko Gini koefizientea 0,515 zen, baina koefiziente globala (banaketaren datuak herrialde bakoitzeko errenta mailaren kintilak dira) 0,619. Nazio bateko *per capita* BPGaren zifretan oso aberatsak eta oso pobreak, hurrenez hurren, eurak baino pobreagoak eta aberatsagoak diren taldeetan batez bestekotuta daudenez, herrialde barruko muturren ratioen eta muturren ratio globalen

arteko diferentziak handiagoak izan ohi dira Gini koefizienteenak baino. 1980tik aurrera nazioen barruan desberdintasun gehiagorako joera orokorra egotearen pertzepzioa hedatuta dagoenez, munduko banaketa kalkulatzeko hori kontuan hartuz gero, emaitzak ezberdinak izango dira. Teorikoki, barneko banaketan izandako aldaketek (desberdintasun gehiago izatea barne) ez dute zertan esan nahi desberdintasun globala handiagoa denik. Herrialde batek nazioarteko errentaren hierarkian duen mugimenduaren arabera, barneko desberdintasunean izandako hazkundera bat etor daiteke zifra globalean izandako hazkunde edo gutxi-kuntzarekin. Aurrerago analizatuko diren azterketek neurri estatistikoak erabiltzen dituzte, zeinak gai diren desberdintasun globalean izan diren aldaketak herrialde arteko eta herrialde barruko eraginetan deskonposatzeko. Ia horrelako azterketa guztien ondorioa da banaketa globalean pisu handiagoa dutela herrialdeen arteko eraginek.

Desberdintasun globala kalkulatzeko dagoen arazo nagusia banaketari buruzko nazioeko datuek duten ego-kitasun eza da. Batez ere banaketari buruzko epe luze-rako oso serie sendo gutxi dago. Beraz, desberdintasun

globala, herrialde arteko desberdintasuna ez bezala, bakarrik ikus daiteke konparatiboki txikiak diren denbora-tarteetan. Hori horrela bada ere, Williamson orain dela gutxi aitzindaria izan da, soldatei buruzko datu historikoak erabili baititu desberdintasunean izandako aldaketei buruzko ondorioak ateratzeko (Williamson and Lindert 2001).

Metodo bi erabili dira desberdintasun globalean azken hamarkadetan izandako maila eta aldaketak neurtzen saiatzeko. Horietako bat herrialde arteko kalkuluetan erabilitako errenta nazionalari buruzko datuekin hasia eta hori erabilgarri dauden banaketaren estimazioak aplikatzea da; horrela, banaketa-taldean *per capita* errenta eratorriko da (normalean kintilak, batzuetan dezilak eta oso gutxitan perzentil txikiagoak). Zifra horiek (biztanleria zifra egokien arabera haztatuta) bateratu egingo dira ondoren, desberdintasun globala kalkulatzeko. Saiakera hori epe historiko luzean egitearen adibide bakarra aurkitu dut, Bourguignon eta Morrisonek 1910-1992 urteetarako egindako azterketa, alegia. Aztertzaile biok Maddisonen 1995eko errenten estimazioak erabili zituzten: hainbat iturritatik lortutako

banaketari buruzko datuekin haztatuta zeuden, eta datuotako asko neurri handian balizkapen fidagarrietan zeuden oinarrituta. Orain dela gutxi Sala-i-Martinek egindako azterketa batek printzipio bera aplikatu dio denbora-tarte laburragoari (1970-1998), errentarako PWT6ko estimazioak erabilia eta banaketarako, berriz, Deininger-Squire datu-basea, hurrengo atalean eztabaidatuko dena. Aurrerago, zehatz deskribatuko dut printzipio bera erabilia nik egindako azterketa; bertan, Deininger-Squireren banaketari buruzko datuak errentari buruzko datu talde biri aplikatu dizkiot: Munduko Bankuaren Munduko Garapenaren Adierazleak eta Maddison 2001i.

Orain dela gutxi Milanovicek egindako azterketa batek bigarren metodo bat erabili du. Banaketari buruzko datuak modu independentean lortutako errentari buruzko datuei aplikatu beharrean, aurreko hiru azterketetan bezala, Milanovicek bere azterketa osoa familia-azterketetan lortutako datuetan oinarritzen du. Horrek aldi berean ematen dizkio banaketa eta errentari buruzko datuak. Metodo ezberdin horren ondorenak 8. atalean eztabaidatuko dira.

6. Banaketari buruzko datuen iturriak

Konparaketak denboran zehar eta herrialdeen artean egin behar direnean, *per capita* BPGaren zifrak eurak ziurrak dira, errentaren banaketaren zifrekin konparatuta. Banaketarentzat egindako kalkuluen kopurua arin hazten bada ere, sistematikoki erabilgarri daudenak *per capita* BPG-ko daudenak baino gutxiago dira oraindik. Oso herrialde gutxienez daude serie luzeak erabilgarri, eta ez da inola ere segurua kalkulu-metodoak elkarrekin bat datozen herrialde ezberdinetarako edo data ezberdinetarako. Nazioarteko desberdintasunaren azterketari berebiziko bultzada eman dio Klaus Deininger eta Lyn Squire-k Munduko Bankuan egindako datu-multzoa argitaratzeak, baita datu-multzo hori oinarri hartuta egindako WIDER International Inequality Database (WIID) argitaratzeak ere. Deininger eta Squirek datu-multzo bi egin zituzten 1950ean hasi eta ia 1995. urtearen arteko denbora-tarterako: erabilgarri dagoen totala eta eurek fidagarrientzat jotzen dituzten zifren bertsio laburtua, kalitate handia edo “onartu” deritzenak. Kategoria horretan sartzeko erabilitako irizpideak dira: errenta-iturri guztiak, autokontsumitutako produkzioa barne, erabiltzen dituzten familia-azterketa nazionaletan lortutakoak, biztanleria guztiaren errenta edo gastuei buruzko datuak. Irizpide horiek aplikatzeak itxuraz nolabaiteko koherentzia ematen dio datu-multzo

osoari. Baina horren baliozkotasunari buruzko hainbat erreparatu egin dituzte Atkinson eta Brandolinik (2001), “bigarren mailako” nazioarteko datu-multzoen kritika orokorraren zati bezala. Autoreok adierazten dute inkoherentzia esanguratsuak daudela Deininger eta Squireren kalitate handiko datu-multzoaren eta OECD herrialdeetako errentaren banaketari buruzko datu-iturrien –gehiago aztertu direnen– artean, eta, data ezberdinetan definizio ezberdinak erabili direnez, ondorioztatu ere egiten dute, Herbehereen kasua adibide moduan erabiltzeko, “oso engainagarria izango litzateke(ela) DS [Deininger-Squire] “onartu” estimazioak serie jarraitutzat hartzea” (780. or.). Hori gertatzen bada ekonomia-estatistikak oso garatuta dituen herrialde batean, egoera oraindik ere txarragoa izango da herrialde gehienetan, horietan estatistikak ez baitaude garatuta.

Atkinson eta Brandoliniren argumentuen, eta nazioarteko errenta eta banaketa datuen inkoherentziari eta fidagarritasun ezari egin zaizkion beste hainbat kritikaren ondorio erabat ulergarria da munduko banaketa kalkulatzeko egindako edozein ahalegin, horretarako hainbat herrialdeetako banaketa datuak denbora-tarte luzean erabiltzeko, guztiz fidagarritasun gabea dela, eta, agian, alabara utzi behar dela. Horrelako datuak existitzen direnean, dena

den, mugak muga, oso handia da hori aztertu eta horrela berarekin zer dakarren ikusteko tentazioa. Banaketarekin gertatzen ari dena hain da garrantzitsua guretzat, ez ditugula baztertzen horri buruz izan ditzakegun froga desegokiak. Eta ditugun datuetatik behin-behineko ondorioak ateratzea, horiek beste azterketa batzuekin konparatzea eta inkoherentziak behatzea datuen etorki-

zuneke kalitatea gehitzeko lanerako lagungarri izango litzateke. Atkinson eta Brandoliniren oharrak garrantzitsuak badira ere, gure datu desegokiak erabiltzen jarraitu dut behin-behineko ondorioak aztertzeko. Ez dago inolako itxaropenik iraganari buruzko datu hoberik lortzeko. Beraz, errenten estimazioekin gertatzen den bezala, kontu handiarekin erabili behar dugu hemen ere.

7. Herrialde arteko azterketak konparatuta

Orain, munduko desberdintasuna aztertzeko metodoek dituzten arazoak utzi, eta egin diren zenbait azterketen arteko konparaketa egingo dut; horretarako, metodoa, erabilitako datuak, tratamenduaren zenbait alde, lortutako emaitzak eta ondorioen esanguratasuna konparatuko ditut. Atal honetan herrialde azterketez arituko naiz, eta hurrengoan, berriz, azterketa globalez.

Datuek eta kalkulu-motak azterketa bakoitzean sartutako herrialde kopuruari eragiten diote. Herrialde arteko azterketak egiteko, herrialde bakoitzeko biztanleriari eta *per capita* errentari buruzko datuak behar dira. Maddisonen informazio hori 1900etik aurrera ematen du 49 herrialderentzat (horietako askorentzat zifra 1820tik honakoak ere badira). Kalkulu gehigarriak egin ezean, mende oso bateko azterketak 49 herrialde horientzat baino ezin daitezke egin. Datu berriagoei dagokienez, herrialde gehiago sar daitezke 5. atalean aurkeztutako hiru estimazio iturrietako edozein erabilita, hain zuzen ere Maddisonen bertsio biak, PWTren zenbait bertsio eta WDIa. Hiru horiek erosteko ahalmenaren parekotasunaren errentari buruzko urteko estimazioak ematen dituzte, mundu osoko biztanleen

ehuneko 90 baino askoz gehiago hartzen duten herrialdeentzat.

7.1. Epe luzeko azterketak

Atal honetan eta hurrengoan analizatutako azterketa guztien denbora-tarteak 98 urte eta bost urte bitartekoak dira. Epe luzeko zein epe laburreko konparaketek desabantailak dituzte datuei dagokienez. Epe luzeko konparaketen kasuan, datuen kalitatea nahiz osotasuna asko alda daiteke konparaketa-aldiaren barruan. Eta epe laburreko konparaketen kasuan, berriz, itxurazko banaketan izandako aldaketa bat erraz egon daiteke datuen errore-marjinaren barruan. Arrazoi horiek direla-eta, epe luzeko konparaketak kontu handiz erabili behar dira, eta epe laburreko azterketak ez dira gehiegi haztatu behar.

Ez dago desadostasunik errentaren munduko banaketa, hogeigarren mendea osorik hartuta, nabarmen dela desberdinagoa dioen ondorioarekin. Maddison 1995ean 49 herrialderen 1900 eta 1998. urteen arteko denbora-tarteari buruz lortutako datuek (Boltho eta Toniolok

aztertu bezala) erakusten dute Giniren koefizientea, guztira, 0,393tik 0,496ra hazi dela. Maddisonen datuek ere erakusten dute 1820tik aurrerako denbora-tartearen ezaugarria herrialde aberats eta pobreen arteko polarizazioa izan dela. Datu berdinak erabiliz, eta horiei euren banaketaren aldaketen estimazio historikoak gehituz, Bourguignon eta Morrisonek euren azterketa globalean Gini koefizientearen epe luzeko aldaketaren eredu lortu dute; hori, oro har, koherentea da Maddison 1995eko herrialde arteko banaketarekin. Eta beste datu kuantitatibo eta kualitatibo batzuek babesa ematen diote gaur eguneko desberdintasuna desberdintasun historikoa baino askoz handiagoa dela dioen ondorioari (Williamson 1997, O'Rourke 2001). Badirudi adostasun orokorra dagoela, erabilgarri dauden estimazioetan oinarrituta, hots, munduko herrialdeak askoz desberdinago bilakatu direla Industria Iraultzaren eta gutxienez Bigarren Mundu Gerra ondoko boom handiaren amaieraren bitartean –1973. urtearen inguruan–.

7.2. Epe ertaineko azterketak

Epe luzeko ondorioa zalantzan jartzen ez bada ere, desadostasun asko sortu da, 2. atalean aipatu bezala, munduko banaketan azken bi hamarkadetan gertatu denaren inguruan. Arin garatu den eztabaida horren erantzule partziala Boltho eta Toniolok, Maddisonen datuak erabiltuta, epe luzeko Gini koefizientea kalkulatu zuteneko azterketa da. Horiek erakutsi zuten desberdintasuna, hogeigarren mendea osorik hartuta, hazi egin den arren, datu berdinak erabiltuta, argi eta garbi jaitzi da 1980tik aurrera, Gini koefizientea 1998an 0,544 izatetik 0,496 izatera jaitsi baita (ikusi 7. taula, 2. errenkada).

Zenbateraino da segurua Boltho eta Toniolok lortutako ondorioa? Horrek izan dezakeen lehenengo arazoa euren asmoa banaketak mende osoan izan dituen aldaketak ikustea denez, kalkuluak bakarrik hartu dituztela kontuan epe horretarako zifra egokiak dituzten 49 herrialdeak. Zer gertatzen da herrialde gehiago sartuz gero? Kalkulu bera errepikatu dut 1980 eta 1998. urteen bitarteko epe labur eta eztabaidaturako Munduko Bankuaren *per capita* BPGaren zifrak (erosteko ahal-

menaren parekotasuna) dituzten 121 herrialdeetako zifretan oinarrituta. Izan ere, 72 herrialde gehiago sartzeak (horietako asko herri pobre samarrak) indartu egiten du aurreko ondorioa: Ginik 1980an balio handiagoa duen arren, erlatiboki gehiago jaisten da 1998. urtea arte (0,610etik 0,538ra, 4. lerroa). Ondorio horrek erreparo bi ditu: lehenengoa Txinaren eragina oso handia dela. Txina kalkulatik kenduz gero, Gini indizea apur bat haziko da, 0,555etik 0,561era (5. lerroa). Eta bigarrena, oraindik ere herrialde asko falta direla azterketan, horientzat ez dagoelako erosteko ahalmenaren parekotasunaren *per capita* errentaren zifra konparagarririk. Herrialdeetako batzuk epe horretan pobreak bihurtu diren herrialde pobreak direnez, herrialde guztiak batzeak, agian, Giniren jaitiera leunduko luke.

Penn World Tablesetako datuak Maddison 1995eko datuekin ordezkatzek ez du emaitzaren noranzkoa aldatzen. Summers eta Hestonek jaitiera apur bat txikiagoa behatu dute Gini koefizientearen 1980 eta 1990. urteen bitartean (konparatu 1 eta 2); euren datuek (PWT5.6) ez zieten uzten azterketa egiterakoan 1992tik aurreragoko Ginirik kalkulatzeko. Firebaugh-ek eta Melchior eta Telle-k, biek ere PWT5.6 erabiliz (azken kasuan, Munduko Bankuak eguneratuta), ia antzeko emaitzak lortu zituzten (3. eta 6. lerroak). Nik PWT6an oinarrituta egindako kalkuluak ere Gini koefizientearen antzeko jaitiera erakusten dute (7. lerroa).

Herrialde arteko estimazioetan benetako ezberdintasuna eragiten duena Maddisonen zifra berriagoak (Maddison 2001) erabiltzea da, aurrekoak erabili beharrean, Boltho eta Toniolok egin bezala. Serie berrien ezberdintasunak dira: herrialde gehiago sartzen direla (horrek esan nahi du, bereziki, aurretik sartzen ez ziren herrialde oso pobreak sartzea); herrialde askoren estimazioak nahiko aldatu direla; eta, garrantzitsuena, hiru herrialderen estimazioak –Japon, India eta garrantzitsuena, Txina– asko berregin direla (ikusi Maddison 1995, 1997 eta 2001). Maddisonen datu berriek erakusten dute Gini koefizientea jaitsi egin zela 1973tik 1980ra, berriro hazi 1980tik 1990era, eta gero apur bat jaitzi 1998ra arte. Berriro ere, Txina kanpo uzteak munduko Gini nabarmen haztea dakar (8. eta 9. lerroak).

7. taula: Herrialde arteko Gini koefizienteak, 1950-1998 (2a irudia ere ikusi)


Autorea eta errentari buruzko datuen iturria	1950	1973	1980	1990	1998
1. Summers eta Heston (PWT 5.6)			0.552	0.547	n.a.
2. Boltho eta Toniolo (Maddison 95)			0.544	0.526	0.496
3. Firebaugh (PWT 5.6)			0.550	*0.543	n.a.
4. Autorearen kalkuluak (WDI 2002)			0.610	0.584	0.538
5. Txina kontutan hartu gabe			0.555	0.562	0.561
6. Melchior eta Telle** (PWT 5.6 eguneratua)		0.59	0.57	0.56	0.52
7. Autorearen kalkuluak (PWT 6)	0.523	0.591	0.581	0.564	0.519
8. Autorearen kalkuluak (Maddison 01)	0.550	0.573	0.555	0.569	0.564
9. Txina kontutan hartu gabe			0.532	0.568	0.582


* = 1989.

** = zifrak gutxi gorabeherakoak (grafikotik aterata).

Iturriak: ikusi bibliografia.

2a irudia: Herrialde arteko Gini koefizienteak, 1950-1998





Kalkuluok konparatuta (denek erabiltzen dituzte erosteko ahalmenaren parekotasunaren zifrak, baina herrialde kopuru ezberdinekin) lortzen den ondorioa da Maddisonen 1995eko errenten estimazioek, Penn World Tableseko eta Munduko Bankuaren WDI zifrek, hirurek, emaitza koherenteak ematen dituztela; denek erakusten dute Gini koefizienteak apur bat edo neurri batean behera egiten duela; bestela esanda, herrialde arteko desberdintasun gutxiago dagoela 1980 ondoko bi hamarkadetan. Salbuespena Maddison 2001eko errentaren estimazio berrikusiak dira. Horien emaitza apur bat fluktuatzen duen Gini koefizientea da. Maddisonen datuetan egindako funtsezko aldaketak izan dira, batetik, Txinaren zifrak berrikustea, eta bestetik, Munduko Bankuaren zifretan agertzen diren herrialdeentzat baino zeharkako estimazio gehiago sartzen ausartu izana. Munduko Bankuak estimazioak ez dituen herrialde mota bi sartzeak izan duen efektua kalkulatuak joera, alegia, desberdintasun gutxiagorako joera, aldatzea izan da. Sartutako herrialdeok dira, batetik, epe horretan *per capita* errentan jaitsiera handiak izan zituzten oso herrialde aberatsak (gehienbat petrolio-ekoizleak), eta bestetik, zenbait herrialde pobre, zeinetan bizitako gizarte-egoera oso txarrekin

(sarritan gerra zibilak) aurretik oso txikiak ziren errenta-mailak are gehiago jaistea ekarri zuten. Kalkulu guztiok munduko biztanleen gehiengo nagusia hartzen duten arren, ezin da pentsatu kanpo utzitako gutxiengoak erabat jarraitzen duenik eredu hori. Izan ere, sartutako herrialdeek diferentzia esanguratsua eragin dezakete emaitzetan.


Jakina, ezin da inola ere errentaren munduko banaketa kalkulatu, ez bada herrialderik jendetsuena, Txina, kontuan hartzen. Baina badaude, hala ere, arrazoi bi zeinen arabera interesgarriak izan daitezkeen Txina kanpo utzita egindako kalkuluak (aurreko taulan Munduko Bankuaren eta Maddison 2001en zifrentzat egin den bezala). Arrazoiotako lehenengoa da Txinak eragin desproporzionatua duela munduko zifretan eta interesgarria dela horiengandik bereiztea, eta bigarrena, ekonomiaren erreformatik aurrera Txinaren BPGari buruz dauden serieen zuzentasunaren gainean eztabaida asko dagoela. Emaitzak iradokitzen du Txinaren errenta nazionalaren mugimenduak, kalkulua edozein dela ere, herrialde arteko desberdintasuna gutxitzeko efektua izan duela, Gini koefizienteak erakusten duen bezala. Melchior (2001) eta Schultz (1998) ere gai beraz jardun dira.

Muturren zenbait ratio ere kalkulatu ditut: WDI (erosteko ahalmenaren parekotasuna) zifrak eta Maddison 2001ek hainbat muturren ratioen gainean egindako azterketa. Emaitzak 8. taulan ikus daitezke. 50/50 ratioak, Maddisonen zifren arabera, eta 20/20 ratioak, estimazio bion arabera, desberdintasun gutxiago du epe osoan. Baina 10/10 ratioak oso bestelako portaera izan zuen.

Munduko Bankuaren zifrei dagokienez, ratioak behera egin zuen lehenengo hamarkadan, baina gero, berriro ere, desberdintasunezkoago bihurtu zen bigarrenean, eta hasi zen maila ia bertsuan geratu. Baina Maddisonen egindako errentaren estimazioen arabera, diferentzia askoz ere esanguratsuagoa zen: 10/10 ratioak erakusten zuen desberdintasuna indartsu hazi zela muturretan.

8. taula: Herrialde arteko muturren ratioak, 1980-1998			
	1980	1990	1998
%50 aberatsena/pobreena WDI	10.91	7.37	5.27
%20 aberatsena/pobreena WDI	26.68	15.94	14.81
%10 aberatsena/pobreena WDI	27.94	23.54	25.75
%5 aberatsena/pobreena WDI	29.01	31.73	39.91
%50 aberatsena/pobreena Maddison 2001	8.35	6.55	5.49
%20 aberatsena/pobreena Maddison 2001	16.82	28.19	18.58
%10 aberatsena/pobreena Maddison 2001	23.09	34.62	40.01
%5 aberatsena/pobreena Maddison 2001	30.03	45.40	61.14

Iturria: autorearen kalkuluak Munduko Bankua 2002 eta Maddison 2001en oinarrituta.



Iturria: Munduko Bankua, *World Development Indicators* 2002, online bertsioa.

Antzeko emaitza (Munduko Bankuak eguneratutako World Tableseko zifrak erabilia) lortu zuen Melchiorrek (2000). Eta 3. irudiak, WDIⁿ oinarritutako urteko kalkuluak erabilia, 20/20 eta 10/10 ratioen arteko portaeren dibergentzia erakusten du. Lehena apurka-apurka jaisten da, eta bigarrena asko jaisten da 1990eko hamarkadan, baina gero, astiro-astiro, goraka hasten da. Zifra horiei guztiei begiratuta, beraz, iradokitzen hasten da sinpleegia dela esatea herrialde arteko desberdintasuna jaitsi egin zela 20. mendearen azken bi hamarkadetan edo “plateau” batean zegoela (Firebaugh 1999), edo “nahiko egonkorra” zela (Bourguignon eta Morrison 2001). Sartutako herrialde-

kopuruaren eta errentari buruzko datuen iturriaren eragina izateaz gain, desberdintasunari buruzko ondorio orokorra desberdintasuna neurtzeko erabilitako estatistikoaren araberakoa da. Neurri integralaren eta muturren ratioaren artean dagoen kontrasteak egonkortasuna edo iraunkortasuna baino, beste edozer iradokitzen du. Gehiago ematen du indar berdintzaile indartsuak daudela banaketaren erdiko sekzioetan (eta horiek eragina dute Gini koefizienteetan), eta horiek muturretan dauden indar desberdintzaile indartsuekin konbinatzen direla. Horren froga gehiago egongo da desberdintasun globala, herrialde artekoari kontrajarrria, aztertzen dugunean.

8. Azterketa globalak konparatuta

Lau azterketa globaletatik hiruk banaketaren estimazioak aplikatzen dizkiete modu independentean lortutako errenten estimazioei, eta laugarrenak (Milanovicenak) banaketa nahiz errentak aldi berean ondorioztatzen ditu Munduko Bankuak egindako familia-azterketetatik. Azterketetako zenbaitek, desberdintasunean izandako aldaketak frogatzeko, estatistiko bat baino gehiago erabiltzen duten bitartean, nik konparaketak Gini koefizientera murriztu ditut. Neurri batean, espazioa aurreztu eta argumentua errazteko. Baina, baita, beste autoreek erabilitako neurri alternatiboek ere ez dutelako euren azterketen emaitzetan aldaketa esanguratsurik sorrarazten, batzuetan sofistikatuagoak izatea baimentzen badie ere.

Bourguignon eta Morrisonen kalkuluak –Maddisonen 1995eko errenta zifretan eta banaketarako zenbait iturritan daude oinarrituta– aurretik ere aipatu dira. 1980tik aurrerako eperako behaketa bi baino ez dituzte ematen, batetik bestera hamahiru urteko diferentziarekin. Behaketok berberak dira eta hori dela-eta autoreek adierazten dute desberdintasun orokorra egonkorra izan dela azken urteetan. Sala-i-Martinek PWT6eko errentaren zifrak erabiltzen ditu eta Deininger-Squire

datu-basea, berriz, banaketarako. Banaketako joera-kurbak eratorriz, urteko datuak sortzen ditu. Banaketaren estimazio bakarra egonez gero, epe osoan aplikatzen du. Bere ondorioa da 1980tik aurrera gutxi-kuntza esanguratsua egon dela desberdintasunean, Gini koefizientea 0,662tik 0,633ra jaitsi baita 1980 eta 1998. urteen arteko epean.

Nire kalkuluak –txostenaren hurrengo atalean deskribatzen dira zehatz-mehatz– printzipioz Sala-i-Martinen antzeko eran daude eginda, baina estatistikoki ez dira hain konplexuak. Nire kalkuluetan, Deininger-Squiren kalitate handiko datu-multzoko banaketaren estimazioak errentaren estimazio biri aplikatu behar zaizkio: Munduko Bankuaren WDI datuak eta Maddisonen 2001eko datuak. Kalkulu bi horietako bakoitza herrialde talde birekin egin da: 35 herrialdeko talde garbia, zeinentzat banaketaren kalkulua zegoen konparatutako hiru urteetarako (edo oso hurreko urte batentzat; ikusi eranskina), eta beste talde hibrido askoz handiagoa. Bigarreneko zenbaitek banaketa-zifrak erabat osatugabe zituzten eta beste batzuk, berriz, inongo zifrarik gabekoak ziren. Metodo zehatzak hurrengo atalean azalduko dira.

9. taula: Gini koefizienteen balioak azterketa globaletan (2b irudia ere ikusi)

Autoreak (errenta, banaketa)	1970	1975	1980	1985	1988	1990	1993	1995	1998	2000
1. Bourguignon/Morrison (Maddison 95, beste zenbait)			0.657				0.657			
2. Sala-i-Martin (PWT 6, D/S)	0.657	0.661	0.662	0.650		0.654		0.635	0.633	
3. Milanovic (familia-azterketak)					0.628		0.66			
4. Sutcliffe garbia (WDI 2002, D/S)			0.697			0.658				0.619
5. Sutcliffe garbia (Maddison 01, D/S)			0.661			0.636			0.617	
6. Sutcliffe hibridoa (WDI 2002, D/S)			0.667			0.650				0.627
7. Sutcliffe hibridoa (Maddison 01, D/S)			0.638			0.633			0.628	

Iturriak: ikusi txosten honetako bibliografia eta 9. atala. D/S = Deininger/Squire.

Herrialde arteko azterketetan gertatzen den bezala, PWT6 eta WDI n oinarritutako errentaren datuen kalkulu guztiek (9. taula, 2., 4. eta 6. errenkadak) jaitsiera nabarmena erakusten dute desberdintasunean, 1980 eta 1998/2000 urteen bitartean. Bourguignon eta Maddisonen kalkuluak (1), Maddison 1995ean oinarritutakoak, ez du aldaketarik erakusten. Nireak (5,7) –Maddison 2001en oinarrituta dago– jaitsiera handia erakusten du azterketa garbiaren kasuan, baina aldaketa oso txikia beste herrialde asko sartzen badira. Diferentzia horietarako, itxuraz, arrazoi bi daude: sartutako herrialde kopurua eta estimazioak eurak. Herrialde arteko azterketei buruz aipatu den bezala, Maddisonen, errentaren gaineko bere azterketaren azken bertsioa egiteko, aldaketa handiak egin zizkien aurretik hainbat herrialde garrantzitsurentzat egindako estimazioei –India eta Txinaren kasuan bereziki–, eta horiek eragin materiala dute azken emaitzan. Ardura berezia ere hartu zuen herrialde eta lurralde guztietako estimazioak sartzeko (sarritan ez zuzenekoak). Horien artean zenbait herrialde daude, zeinentzat, adibidez, Munduko Bankuak ez duen estimaziorik ematen, herrialdeotan gerra edo beste arrazoi batzuk medio gobernuaren estatistika-zerbitzuak bertan behera daude-eta. Horrek esan nahi du azken hamarkadetan

gaizkien ibili diren herrialde gehiago sartu dituela, baita, era berean, beste datu-multzo batzuetatik kanpo utzi diren herrialde oso aberats batzuk (petrolio-ekoizleak eta paradisu-fiskalak) ere. Horrek ez du esan nahi herrialdeontzako estimazioak nahitaez oso zehatzak direnik, baina horiek sartzeak datu-basea bereziki bihurtzen du egokia banaketa globalaren irudi osatua goa lortzeko. Horren emaitza da Maddisonen datuek erakusten dutela Gini koefizientea apur bat bakarrik jaisten dela, 0,638tik 0,628ra, 1980 eta 1998, urteen bitartean, eta, aurreko atalean dagoeneko ikusi dugun bezala, herrialde arteko desberdintasuna ia-ia estatikoa dela. Azterketa guztion emaitza konbinatuak aurretik emandako inpresioa, alegia, desberdintasunak jaitsiera handia duela epe horretan, zertxobait, inola ere ez osorik, ahultzen du.

Beste azterketa globalak, Milanovicenak (3), oso bestelako emaitza ematen du: Gini koefizientearen hazkundea 5 urteko denbora-tartean. Bere metodoa da hasia ez errenta nazionalaren kalkulu agregatuekin, familietan errenta edo kontsumoari buruz egindako azterketetako datu zehatzekin baino. Ondorioz, banaketa eta errentari buruzko datuak batera lortzen ditu. Esan dugun bezala, besteek erabilitako bi etapako metodoa

baino askoz bide naturalagoa da banaketa globalaren azterketa egiteko. Mota horretako datuak hainbat urtetan jaso ditu Munduko Bankuak familiei buruz egindako azterketetan. Branko Milanovicek horiek erabili ditu desberdintasun globalaren “benetako” lehenengo neurria, berak dioen bezala (Milanovic 2000), lortzeko. Bere azterketa azpimarragarria da ez bakarrik metodologia aitzindaria darabilelako, baita, orain arte ikusitako metodo gehienek ez bezala, Gini koefiziente globala (eta desberdintasunaren beste neurri batzuk) arin hazi dela ondorioztatzen duelako ere, beste autore batzuentzat beherantz egin duen edo estatiko egon den epe berberean. Beste azterketa batek –Nikhanov eta Ward (2001)– Milanovicek erabilitako familia-banaketa-*ren* datu berberak erabiliz, ia ondorio bera ateratu du.

Interesgarria eta berritzailea bada ere, Milanovicen azterketak badu zenbait muga. Lehenengoa da hartzen duen denbora-tartea oso laburra dela (1988 eta 1993), eta horrek ezinezkoa egiten du bertatik ondorioz atzeratzea, ezta 1980tik aurrerako hamarkada bietarako ere. Aipatutako urte biak aukeratu ditu nazioarteko prezio-mailak konparatzeko erreferentzia-urteak direlako (erosteko ahalmenaren parekotasunaren errenta eta kontsumoari buruzko datuak eraikitzeke erabiliak), baina familia-azterketen datak ez datoz beti bat urte horiekin. Batzuetan horien hurreko urteekin daude erlazionatuta, eta horrek esan nahi du azterketa urte bitan oinarrituz gero, batetik bestera bost urte bakarrik dagoenez, urteen multzoa gainjarri egin daitekeela. 1988rako zifrak 1980 eta 1991. urteen bitartean egindako azterketetan daude oinarrituta, eta 1993koak, berriz, 1990 eta 1998. urteen bitartean egindakoetan. Muga hori partzialki azaltzeko, esan daiteke, nazioko banaketan izandako aldaketek orokorrean norabide bakarra izan dutela onartuta, Gini koefiziente globalean behatutako hazkundeak iradokitzen duela desberdintasun globalak 1980ko eta 1990eko hamarkaden bitartean goranzko joera orokorra zuela. Baina arazo horrek, dena den, esan nahi du lortutako ondorioa interesgarria den arren, azterketak ez duela ematen behin betiko erantzun bat azken bi hamarkadetan banaketa globalarekin zer gertatu zen azaltzeko.

Milanovicek herrialde arteko eta herrialde barruko osagaietan bereizten ditu desberdintasun global orokorren gain dauden eraginak. Berak aurkitu du, teknika hori erabili duten ia beste guztiek bezala, desberdintasun globalaren gehiengo herrialde arteko diferentzien

ondoriozkoa dela, herrialde barrukoena baino. Baina ondorio horrek –Gini koefiziente bere azterketako bost urteetan hazteko arrazoi nagusia gero eta handiagoak diren herrialde arteko diferentziak dira– kasu honetan bitxi samarra ematen du, nabarmendu egiten duelako Txina eta Indiako landako/hiriko desberdintasunak hazteak egin duen ekarpen berezia, baina landa-sektorea eta hiri-sektorea bi herrialdeetan “herrialde” banatutzat hartzen ditu.

Etapako metodologia darabilten azterketek (nazioko *per capita* errentarekin edo produkzioarekin hasi, eta gero, banaketari buruzko kintil datuak erabilita *per capita* errenta edo kintil-taldeak lortzeko) nahiko emaitza koherenteak ematen dituzte; Milanovicek erabilitako etapa bakarreko metodoak, aldiz, (familiei buruzko azterketak zuzenean erabiltzea errenta eta banaketa kalkulatzeko) bestelako emaitza ematen du. Baliteke ezberdintasun horren azalpena metodo ezberdinak erabiltzeak izatea. Milanovicek adierazten du zergatik espero behar den metodo biek emaitza ezberdinak ematea. Baina azaltzen ez duena da zergatik 1998rako bere metodoak ematen duen Gini koefizientea (inplizituki) etapa biko metodoen bidez lortutako edozein baino apur bat txikiagoa den, eta 1993rako, aldiz, koefiziente handiagoa ematen duen. Ez dago argi zergatik, bost urteko epe horretan, aldatu behar izan diren etapa biko metodoak etapa bakarrekoaren emaitza bera ez ematea eragiten duten faktoreak, hain zuzen ere, erabateko aldaketa hori sortzeraino.

Milanovicen azterketak duen azken arazoa da familia-azterketen konparagarritasuna eta fidagarritasuna agian ez dela hobe aipatutako azterketa guztietan erabilitako estatistikoen konparagarritasun eta fidagarritasuna baino. Eta, erosteko ahalmenaren parekotasunaren kalkulak *per capita* produktu edo errentarako erabiltzen dituzten etapa biko azterketetan bestela gertatzen bada ere, Munduko Bankuaren familia-azterketen kasuan iturri bakarra dago. Hori ez da Milanovicen azterketari bakarrik egiten zaion erreparoa, azken finean, banaketa globalari buruzko azterketa guztiak zalantzarik gabeko fidagarritasuneko datuetan oinarritzen baitira eta horietako askok, azkenean, herrialde barruko desberdintasunen kalkulak erabiltzen baitituzte; eta horiek, hein batean behintzat, Milanovicek erabilitako Munduko Bankuaren familiei buruzko azterketetatik daude ondorioztatuta. Baina metodo honen bidez eta beste metodoen bidez lortutako ondorioen arteko

ezberdintasunak (horien azpian dauden datuak neurri batean berberak badira ere) errenta eta banaketari buruzko datuak konparatzen eta hobetzen gehiago lan egin beharraren garrantzia azpimarratzen du.

Ez dut, dena den, esan nahi lan bat ere ez denik erabilgarria datuak hobetzen ez diren bitartean. Aldiz,

esan nahi dudana da datuek dituzten arazoei emaitza ezberdinak agertzea dakartela, ezberdintasunak daudelako datuetan nahiz metodoan, eta ondorioak, beraz, ezin daitezkeela behin betiko ondoriotzat hartu, hipotesizat baizik, zeinentzat euskarri gehiago bilatu behar den.

9. Kalkulu gehigarri bi, 1980-2000

Kalkulu gehigarri bi egin ditut hiru urteetarako –1980, 1990 eta 1998/2000– eta horien emaitzetako batzuk dagoeneko aurreko atalean aurkeztu dira, baina hemen zehaztasunez deskribatuko dira. Nahiko diferenteak dira metodoan, aukeratutako datuetan eta emaitzetan, horiek deskribatu eta aurretik aipatutako beste kalkuluekin konparatzeak merezi izateko. Balio globalak kalkulatu ditut bientzat, muturren ratioentzat nahiz Gini koefizienteentzat, eta ondorioz interesgarriena neurri horiek konparatetik sortzen diren irudi ezberdinak dira. Erabilitako errentari buruzko datuak Munduko Bankuaren WDItik eta Maddison 2001etik hartu ziren eta, beraz, data-iturri diferenteak erabiltzearen ondoriozko diferentziak zuzenean konparatu daitezke. Kintil banaketaren zifrak Deininger-Squiren banaketari buruzko datu-multzokoak dira, eta hori, azken urteetarako, World Development Indicators 2002n (liburua) agertzen den banaketari buruzko taulak osatuta dago.

Kalkulu biek iturri berak darabiltzate, baina ezberdin tratatzen dituzte. Lehenengoak (azterketa garbia deritzot) bakarrik sartzen ditu hiru urteetarako *per capita* BPGaren (erosteko ahalmenaren parekotasuna) balioak eta kintil arteko banaketaren estimazioak dituzten herrialdeak; ez da datu osagarriak estrapolatu.

Laginerako herrialde ideala 1980, 1990 eta 1998rako (posible den azken urtea) kintiletarako zifrak zituena zen. Baldintza zorrotz horrek esan nahi du, jakina, oso mugatua dela aipatutako iturrietan datu horiek guztiak erabilgarri dituzten herrialdeen kopurua: 5 herrialdek besterik ez dituzte betetzen irizpideok. Ondorioz, herrialdeak kontuan hartu ziren arestian aipatutako urteen hurreko urteetan kintil banaketaren hiru behaketa bazituzten. Nahiko eskuzabala izan behar izan nuen arau hori interpretatzerakoan (eranskineko oharrean ikus daitekeen bezala), 35 herrialde sartu ahal izateko. 35 herrialdeotan munduko biztanleriaren %70 bizi zen 1980 eta 1990ean, eta %69 2000. urtean; munduko BPGan duten parte-hartzea 1980ko ehuneko 61etik 2000ko ehuneko 67ra hazi zen. Horrek esan nahi du 35 herrialdeok, elkarrekin, munduko batez besteko *per capita* BPGa baino txikiagoa dutela, baina munduko batez bestekoarekin alderatuta, hobera egin dutela aztertutako urteetan.

Bigarren kalkulua (azterketa hibridoa deritzot) datu-iturri beretan dago oinarrituta, baina baliorik ez dagoenean estrapolatu egiten ditu, sartzen den herrialde-kopurua maximizatzeke. Egindako aldaketa biak ondokoak dira:

- a. urte bat edo gehiagorako WDIren datu-multzoan *per capita* BPGaren zifrak falta zirenean, interpolatu egin ziren, metodo bietako bat erabiliz. Zenbait kasutan uste izan da herrialdeak berau dagoen kontinentearen batez bestekoarekin duen harremana *per capita* BPGaren estimazioa erabilgarri duen hurbileneko urtean duen harreman bera dela; zenbait kasu berezitan izan ezik, non uste izan baita ratio bera mantendu dutela daturik ez duen herrialdeak eta beste herrialde batek (Mongoliak Errusiako Federazioarekin, eta Oman, Katar eta Kuwaitek Saudi Arabiarekin).
- b. banaketari buruzko datuak estrapolatzerakoan, uste izan da urte jakin baterako banaketarik egon ez denean, kintil arteko banaketa berdin mantendu dela, hau da, erabilgarri dagoen aurreko urtekoaren bera dela. Banaketari buruzko inolako daturik ez dagoenean, biztanleen kintil bakoitzari

errentaren bosten bat esleitu zaio (hau da, berdintasun osoa dagoela uste da). Hortaz, ez da inolako suposiziorik egin banaketa zein izan daitekeenari buruz edo zelan mugitu izan denari buruz. Falta diren estimazioak emateko erregela sinpleok aplikatu dira eta ez da inolako ahaleginik egin gertatu ahal izan dena iragartzeko.

Prozeduroi esker, lagineko herrialde-kopurua 35etik 196ra gehitu daiteke, horrela, munduko biztanleen ia ehuneko 96 hartzeko. Gehitutako 128 herrialdeetatik 4 (Mongolia, Oman, Qatar eta Kuwait) gehitu dira errentaren estimazioa dagoelako eta beste 123 kintil arteko banaketarako zifrak gehitu direlako. Herrialde gutxi batzuk guztiz kanpo utzi dira, ez dagoelako horiei buruzko datu konparagarriak, ez erosteko ahalmenaren parekotasunaren errentan ez banaketan. Horrela egin da Barbadosen, Jugoslavia ohiko herrialde guztiekin, Kuba, Kanbodia, Laos, Ruanda, Djibouti eta Liberiarekin.

10. taula: Azterketa "garbia"ren emaitzak			
WDI 2002 zifrak erabilia	1980	1990	2000
Gini koefiziente globala	0.6977	0.6582	0.6192
%50 aberatsena/pobreena	12.6	9.5	8.0
%20 aberatsena/pobreena	42.2	30.4	24.5
%10 aberatsena/pobreena	74.6	69.9	47.7
Maddison 2001 zifrak erabilia	1980	1990	1998
Gini koefiziente globala	0.6607	0.6359	0.6173
%50 aberatsena/pobreena	9.9	8.37	7.9
%20 aberatsena/pobreena	40.0	25.8	25.2
%10 aberatsena/pobreena	54.4	51.1	48.7

Iturria: autorearen kalkuluak Munduko Bankua 2002a eta 2002b eta Maddison 2001n oinarrituta.

Azterketa garbian (10. taula) Gini koefiziente globalak zifra globalerako ehunekotan izandako jaitsiera errenta-iturri bien kasuan proportzionalki handiagoa da Boltho eta Toniloren kalkuluan, Maddison 1995 erabilia, herrialde arteko zifrak izandako jaitsiera baino. Herrialde-lagin horretarako, herrialde arteko Gini koefizientea askoz gehiago jaisten da Boltho eta Tonioloren zifra baino. Baina 1998an Gini globala, kalkulu horren arabera, oraindik ere handiagoa da munduko beste edozein herrialde-takoa baino, Sierra Leonakoa izan ezik (Munduko Bankua 2002, liburua). Beste behin, Maddison 2001 zifrek desberdintasunean jaitsiera txikiagoa ematen dute

WDI 2002 zifrek baino. Afrikako herrialde azpisaharar ia guztiak, daturik ez dagoenez, azterketa garbitik kanpo uzteak ezberdintasun garrantzitsua eragiten du Gini koefizienteen mailan eta joeran.

Emaitzek adierazten dute tarte gero eta zabalagoa dagoela Gini globalen eta herrialde artekoen artean; horrek iradokitzen du munduko biztanleek gero eta desberdintasun handiagoa izatea herrialde barruko desberdintasunek sorrarazten dutela, herrialde artekoek baino. Bourguignon eta Morrisonek eta beste idazle askok ondorio bera ateratu zuten.

11. taula: Azterketa hibridoaren emaitzak			
WDI 2002 zifrak erabilita	1980	1990	2000
Gini koefizientea	0.6667	0.6504	0.6272
%50 aberatsena/pobreena	13.62	10.21	8.83
%20 aberatsena/pobreena	45.73	33.85	29.49
%10 aberatsena/pobreena	78.86	64.21	57.41
%5 aberatsena/pobreena	120.75	101.02	116.41
%1 aberatsena/pobreena	216.17	275.73	414.57
Maddison 2001 zifrak erabilita	1980	1990	1998
Coeficiente global de Gini	0.6385	0.6331	0.6285
%50 aberatsena/pobreena	10.4	9.1	8.9
%20 aberatsena/pobreena	33.0	30.5	23.1
%10 aberatsena/pobreena	58.2	54.9	61.1
%5 aberatsena/pobreena	139.4	98.6	123.1
%1 aberatsena/pobreena	214.3	290.6	359.6

Iturria: ikusi 10. taula.

Azterketa hibridoak (11. taula) benetan ere 128 herrialderen nazioarteko banaketari buruzko datuak gehitzen dizkie azterketa garbiko 35 herrialdetako datu globalei. Agian harrigarria da (orain Afrikako herrialde asko sartu direnez) Gini koefiziente orokorra, errenta-iturri bietarako, zertxobait txikiagoa izatea 1980an azterketa garbiarena baino. Baina, oraindik ere beheraldia ikus badaiteke ere 18 urteetan zehar, jaitsiera askoz txikiagoa da azterketa garbian edo Maddisonen 1995eko datuak erabilita kalkulaturako herrialde arteko Gini koefizientearen jaitsiera baino. Maddison 2001ekin lortutako Gini koefizientea beherantz doa, baina jaitsiera askoz txikiagoa da WDI datuek erakusten dutena baino. Are harrigarriagoa, WDI zifren kasuan nahiko jaitsiera handia dago 20/20 eta 10/10 ratioen kasuan. Azkena bereziki da harrigarria, kontuan izanda, aurretik ikusi den bezala, beste zenbait iturri ere erakusten digutela 1990eko hamarkadan, estatistiko horren arabera, desberdintasuna hazi egin dela. Baina, mutur txikiagoak konparatuz gero ere, emaitza aldatu egiten da, eta nahiko nabarmen. 5/5 ratioa jaitsi egiten da 1980ko hamarkadan eta, gero, hazi egiten da 1990eko hamarkadan. Maddison 2001 zifrak erabilita, berdintzatzen da 10/10 ratioarekin ere. Eta datu-iturri bien kasuan, izugarri hazten da aberatsenen errentaren ratioa munduko biztanleriaren ehuneko 1 pobreenarekin konparatuta, bestela esanda, ia 60 milioi pertsona banaketa-

ren mutur bakoitzean. Ratio hori ia-ia bikoiztu egin da aztertutako hamarkada bietan.

Aurreko datu global guztietatik, herrialde arteko kalkulu kasuan bezala, itxuraz ateratzen dena da zentzu batean desberdintasuna jaitsi edo orekatu egiten den arren, beste zentzu batzuetan desberdintasuna hazi egiten dela. Lehenengo, banaketaren goialdean dagoen talde txiki bat bere burua gainontzeko munduko banaketatik aldentzen joan da, eta behealdeko beste talde batek gero eta gabezia gehiago pairatu du: horrek ikusi berri ditugun muturren ratioak ematen ditu. Goialdeko taldearen osagairik handiena AEBetako biztanleetako gorengo kintila da. Susmoa dut joera oraindik markatuagoa izango litzatekeela, barruko kintilak azterketa honetan erabilitako kintil soilak baino zehaztuagoak balira. Hemen bada, beraz, errentaren berebiziko hazkundeari buruz beste iturri batek emandako frogarik, hazi egin direlako, esaterako, konpainia handietako zuzendari nagusiak, “aberastasun ultra handiko norbakoak”, eta beste batzuk. Azken horiek txosten honen lehenengo atalean ikusi ditugu eta horien aberastasu-nak, baita beren krimen eta delituek ere, komunikabi-deen eta gobernuaren arreta gero eta handiagoa hartu dute 2002. urtean. Bigarren zentzuan, baita, herrialde, kontinente edo herrialde-talde arteko desberdintasunak gorantz doaz, munduko desberdintasunaren neurri

orokorrak egonkor dauden edo beherantz ari diren bitartean. Horrelako kasuetako zenbait hurrengo atalean ikusiko dira. Hirugarren, neurtutako herrialde arteko desberdintasunak eta desberdintasun globalak azken aldian jaitiera izan badute ere, hori ezin daiteke iraungo duen joeratzat hartu. Sala-i-Martin da azken aldian desberdintasunak behera egin duela dioteneta-

koen bat; haatik, oso eranskin garrantzitsua gehitzen du: azken 20 urteetan izan diren herrialde arteko nahiz herrialde barruko demografiaren eta ekonomiaren hazkunde-joerak aldaketarik gabe mantenduz gero, orduan, luze barik, berriz ere munduko desberdintasunaren epe luzeko hazkundera izango da, hogeigarren mende gehienaren ezaugarri izan dena.

10. Desagregatutako neurri gehiago

Munduko desberdintasunaren neurriak munduko biztanleen milaka talde ezberdinen errenta erlatiboaren hazkunde eta jaitsieren emaitza netoa dira; beraz, agian, desberdintasunak aldatzeko izan duen moduari buruzko ondorio gehiago atera dezakegu neurri desagregatuagoak kontuan hartuz gero. Mugatua bada ere barneko banaketari buruzko datuak denboran erabilgarri dituen herrialde-kopurua, munduko leku ezberdinetan dauden herrialdeak har ditzakegu eta, elkarrekin alderatuta, nolako ibilbidea izan duten ikusi. Hori egin da 12. taulan; bertan, goiko aldeko AEBetako biztanleen ehuneko 10aren ratioa lau herrialde handiko –Brasil, India, Txina eta Nigeria– 1980 eta 2000ko behe-rengo ehuneko 10arekin alderatuta erakusten da.

12. taula: AEBetako kintilik aberatsenaren <i>per capita</i> errentaren ratioa lau herrialde pobreagotako kintilik pobreenarekin alderatuta (errenta erosteko ahalmenaren parekotasuna dolarretan kalkulaturik)				
	Brasil	Txina	India	Nigeria
1980	46	157	96	152
1990	75	106	79	215
2000	94	67	83	42

Iturriak: Munduko Bankua 2002a eta 2002b (errentarako hiru urtetan eta banaketarako azken urtean); Deininger eta Squire 1996 (1980 eta 1990eko banaketarako)

Oharra: herrialde guztietarako, zehaztutako urteetako errenten zifrak erabilgarri dagoen hurbileneko urtearen barneko banaketari buruzko zifrekin konbinatuta erabili dira (ikusi eranskineko oharra).

Zifra horiek erakusten dute Txinako pobreen egoera zertxobait hobetu dela AEBetako aberatsenekin alderatuta azken bi hamarkadetan; Indiako pobreen zifrek fluktuatu egin dute eta horien pobretasuna, AEBetako aberatsenekin alderatuta, apur bat txikiagoa da. Brasilgo pobreen pobretasun erlatiboa 1980koaren bikoitza da, eta Nigeriakoena, berriz, bikoitza edo hiru-koitza. Edozein dela ere banaketari buruzko neurri orokor bakunek erakusten dutena, zifra horiek nabarmen azpimarratzen dute zifra globalen atzean konbergentzia eta dibergentzia prozesu konplexu eta kontraesankorra dagoela. Merezi du ohartzea, kalkulatzeko metodo berean, 1990 eta 2000. urteen bitartean Txinako kintilik altuenak aurre hartu ziola AEBetako kintilik baxuenari *per capita* errentaren mailan.

Prozesu bera ilustratzen du AEBetako kintil aberatsenaren errentaren eta munduko errentaren batez beste-koaren eta erdiko balioaren bilakaerak, 13. taulan ikus daitekeen bezala. Horientzako datuak eta azterketa hibridoan erabilitakoak berberdinak dira (ikusi 10. atala).

13. taula: AEBetako gorengo errenten eta munduko batez bestekoaren eta medianaren arteko harremana			
	1980	1990	2000
AEBeko gorengo kintila/munduko mediana	34	31	26
AEBeko gorengo kintila /munduko batez bestekoa	8.5	9.5	10.5
Munduko batez bestekoa / munduko mediana	4.0	3.3	2.5

Iturria: ikusi 13. taula.

11. Adostasunak eta desadostasunak

Arestian egindako zenbait azterketaren arteko konparaketek, metodologia eta datu ezberdinak erabiliz, zenbait behin-behineko ondoriotarako bidea ematen dute. Lehenengo, zenbait kalkuluk, partzialki ezberdinak diren datu eta metodoak erabiliz, bada, kalkulu horiek denek jartzen dute Gini koefiziente 1990ean 0,65 inguruan edo apur bat beherago. Posible da hori ez izatea kointzidentzia, bere benetako balioaren gutxi gorabeherakoa baino. Horrela, bada, ondoriozta daiteke errentak munduko biztanlerian duen banaketa desberdina dela edozein herrialdetan duena baino, baita Brasilen edo Hego Afrikan, desberdintasunaren ikurretan, ere.

Bigarren, joerari dagokionez, Milanovicen kalkuluek itxuraz besteenarengandik oso bestelakoa den irudia ematen dute, baina konparaketa doi-doia ezinezkoa da. Konparatutako urteak berdinak ez diren arren, azterketa horrek 1988 eta 1993. urteen artean desberdintasun globalean hazkunde handia aurkitzea badirudi apur bat inkoherentea dela nire kalkuluekin, nahiz Bourguignon eta Morrisonenarekin; azken bi horiek, baina, modu nahiko ulertezinean Milanovicen azterketa eurenarekin koherentea dela esaten dute. Baina, nik sus-

matzen dudak bezala, bateraezinak badira, ezberdintasunaren arrazoia datuak ezberdinak izatea izango da. Milanovicek eta Dikhanov eta Wardek familien gastuei buruzko Munduko Bankuaren datu-multzoa erabiltzen dute; aldiz, Bourguignon eta Morrisonek, Sala-i-Martinek eta nik *per capita* BPGaren kalkuluek erabiltzen ditugu, banaketari buruzko kalkuluekin haztatuta. Benetan ere datu ezberdinak erabiltzea bada itxuraz hain diferenteak diren emaitzak izatearen erantzulea, orduan, jakina, kalkulaturako emaitzei buruzko eztabaida beste eztabaida asko zehaztuago batekin ordezkatu behar da, hain zuzen ere, familien gastuen kalkuluek BPGaren kalkuluekin konparatuta duten baliozko-tasunaren gainekoa (Milanovicek jorratu zuen arazo hori bere artikuluan (2002)). Horrekin zerikusia duen ageriko arazo bat gobernuaren errenta eta gastua da. Familien gastua, guztira, nazio osoaren errenta baino txikiagoa izan behar da nahitaez, eta diferentziaren zati handi bat gobernuaren gastua izango da. Gobernuaren gastua ez bada berdintasunekoa, orduan BPGaren zifrek azpiestimatu egingo dute desberdintasun-maila; berdintasunekoa bada, ordea, familien gastuan oinarritutako kalkuluek desberdintasun-maila puztuko dute. Horrelako arazoak konpondu bitartean, azken urteeta-

ko desberdintasun globala dela-eta ekonomisten artean gaur egun dagoen eztabaidak ezin du ezer asko argitu. Ezberdintasunak, benetan, datuei eta horien egokitasunari buruzko ezberdintasunak dira.

Hirugarren, azterketek emaitza ezberdinak ematen dituzte hogeigarren mendeko azken bi hamarkadetarako. Denek zalantzan jartzen dute desberdintasuna neoliberalismoaren garaian asko eta modu argian jaitsi dela dioen ideia. Eta ez diete kontsolamendurik ematen desberdintasuna asko eta modu argian hazi dela diotenei.

Laugarren, deigarria da asko eta asko erabiltzen diren Maddisonen errentari buruzko kalkulu historikoen bertsio berriek ez erakustea aurreko bertsioan dagoeneko bazegoen Gini koefizientearen jaitsiera handia. Izan ere, mundu osoan, Txinan salbu, Gini koefizienteak asko egin du gora 1980 eta 1998. urteen artean (eta hori ez da ikusten PWT edo Munduko Bankuaren erosteko ahalmenaren parekotasunari buruzko datuak erabilita). Horrek esan nahi du, Maddisonen kasuan, errentak Txinan azken bi hamarkadetan izan dituen aldaketek mundu-mailan berdintasun gehiago sortzen indar handia izan dutela, Txinan bertan desberdintasun gehiago sortu duten arren. Ondorio hori alde bitik da ironikoa Milanovicenarekin konparatuta. Azpimarratzen du landa-eremuko Txinaren eta hiri-eremuko Txinaren arteko desberdintasun hazkorra dela 1998 eta 1993. urteen artean munduko desberdintasunean hazkunde handia sorrarazi zuten faktore nagusietako bat. Horretan kontraesan nagusi bat dago modu inplizituan, eta horrek gehiago aztertzea mereziko luke.

Bosgarren, erosteko ahalmenaren parekotasunaren kalkuluetan oinarritutako kalkuluek desberdintasunaren kalkulu txikiagoak ematen dituzte eta desberdintasunaren hazkunde geldoagoa erakusten dute, nazioen errentak kanbio-tasak erabilia bihurtzen dituzten kalkuluek baino. Kanbio-tasan oinarritutako konparaketen datuak konparaziorako baino ez ditut eman, datuok asko eta asko aipatzen direlako. Nire iritziz, kanbio-tasen arabera munduko banaketaren kalkulu bat, nazio-artekoa nahiz globala izan, printzipioz zentzugarria da eta ez litzateke inoiz egin behar. Adibide bat emateko: 1999 eta 2001. urteen artean euroaren eta AEBetako dolarren arteko kanbio-tasa ehuneko 30 inguru jaitsi zen. Horrek AEBetako errenta erreala,

Europako errenta errealekin konparatuta, ehuneko 30 hazi denik esan nahi al du? Ez, jakina ezetz. Kanbio-tasen arabera kalkuluak galarazita egon beharko lirarteke eztabaida honetan. Baina oraindik ere erabiliko dira, jende askok lortu nahi dituen ondorioak sustatzen baitituzte. Horrek ez du esan nahi erosteko ahalmenaren parekotasunaren kalkuluak perfektuak direnik. Akats asko dituzte. Iturri ezberdinek kalkulu oso ezberdinak ematen dituzte, eta kalkuluak bakarrik lor daitezke prezioen gaineko azterketetan baliabide-kopuru handia erabilia. Baina, gutxienez, konparaketarako oinarri koherentea ematen dute. Ezin dezakegu horixe bera esan kanbio-tasetan oinarritutako kalkuluei buruz, batez ere kanbio-tasa gero eta ezegonkorragoak dituen mundu honetan.

Seigarren, nik egindako kalkuluek iradokitzen dute aberatsen eta pobreen muturren arteko desberdintasuna hazten ari dela, munduko biztanleriaren erdiko sektioak gero eta gehiago hurreratzen diren bitartean (ikusi 9. atala). Emaitza hori bat dator Melchiorrek (2001), herrialde arteko errentaren datuak erabilia, lortutako antzeko emaitza batekin.

Zazpigarren, emaitza guztiok konparatzerakoan, eztabaida handia sortu da: munduaren ezaugarria gero eta gehiago den banaketa bi-modala ala uni-modala. Quah-k esan du sortzen joan dena “gailur bikiak” (“twin-peaks”) itxurako banaketa izan dela. Milanovic ere (2002b) ondorioztatu du “klase ertainik gabeko mundu”ra hurbiltzen ari garela. Klase ertaina, estatistikoki, batez besteko errentaren ehuneko 75 eta 125aren artean daudenak direla dioen gutxi gorabeherako araua munduari aplikatuz gero, biztanleen ehuneko 14,5 bakarrik dagoela klase horren barruan kalkulatu du berak. Maddisonen zifren arabera, 1998an ehuneko 12 inguru bakarrik zen, eta oso gutxi aldatu da 1980tik aurrera. Ostera, Sala-i-Martinen ondorioa da egoera honetan “desagertzen diren gailur bikiak” daudela eta “munduko klase ertainaren sorrera” dela. Diferentzia hori ez da bakarrik garrantzitsua estatistikak interpretatzeko, egokia ere bada mundu kapitalista gero eta globalizatuagoa hartzen ari den klase-egiturarako, eta horrek, jakina, ondoren asko izango litzuke etorkizuneko garapen politikorako. Eredu asko dago gai honen gainean lan eta eztabaida gehiago egiteko, bai maila estatistikoan bai politikoan.

12. Eztabaidaren ironiak

Hogeigarren mendearen amaierak horri buruzko balorazio mordoa sorrarazi du adituen eta nazioarteko erakundeek aldetik. Produktibitatearen eta produkzioaren hazkundeari dagokionez mendea oso-oso arrakastatsua izatearen inguruan adostasun handia badago ere, ekonomista ekologikoen artean izan ezik, zalantza gehiago dago banaketari buruz. Asko kezkatuta daude mendea konbergentziarako baino dibergentziarako izan delako. Herrialdeen *per capita* errenten artean dagoen zuloa handitu egin da mendean zehar; UNDP, OECD, NMF, Munduko Bankua eta beste erakunde batzuen txostenetan horren berri eman da, bai eta beste argitalpen batzuetan ere.

Orain dela hamarkada bat pasatxo Nazio Batuen Garapenerako Programa (UNDP) salatzen hasi zen *per capita* errenta nazionalaren zifra konbentzionalak erabiltzen zirela garapenaren neurri egoki moduan. UNDPk, Giza Garapenaren Indize arrakastatsua asmatzerakoan, argudiatu zuen *per capita* errenta erosteko ahalmenaren parekotasuna erabilia bihurtu behar dela, baina ez kanbio-tasekin. Adierazi zuen, halaber, *per capita* errentaren balioa asko moteldu beharko litzate-

keela (horren logaritmoa erabilia, balio erreala baino); garapenaren indizearen heren bat baino ez litzatekeela izan beharko, eta beste bi herenak, berriz, bizi-itxaropena eta hezkuntza. Indize horren araberrako munduan, dena den, herrialdeak kuantitatiboki askoz berdina jotzen dira *per capita* errenta konbentzionalak erabiltzen denean baino. Eta orain dela gutxi egingadako azterketa batek erakutsi du epe luzean, zeinean zehar per kapitaren errentaren arabera elkarrengandik aldendu diren, elkartu egin direla HDIaren (Crafts 2000) arabera. Bourguignon eta Morrisonek ere ez diote bakarrik begiratzen epe luzeko errentaren banaketaren dibergentziari, baita bizi-urteen banaketaren konbergentziari ere. Aldagai horri buruz lor daitezkeen datu bakarrak herrialde artekoak dira. Baina errentaren kasuan bezala, bizi-esperantza bantaketa desberdina da nazioetako biztanlerietan (Sutcliffe 2001), oraindik horri buruzko datu gutxi badago ere.

1990eko hamarkadan UNDPk HDI argitaratzen jarraitu zuen, baina propagandarako garrantzi gero eta gehiago ematen zion azken 30 urteetako munduko desberdintasunaren neurriei, hain zuzen ere bere txostenek (eta

ekonomista gehienek) aurretik ezegokitzat jotako zifretan *–per capita* errenta kanbio-tasa arrunta erabiliz dolarretan bihurtuta– oinarritutako neurriei. Horiek, jakina, hazkunde zorrotza erakusten dute errentaren desberdintasunean, eta UNDPk gai horretan eskatutakoa funtsezkoa izan da ideia hori zabaltzeko. Itonia hori handitu egin da 1990eko hamarkadaren azken urteetan, kanbio-tasaren bihurtetaren eta erosteko ahalmenaren parekotasunaren neurrien arteko harremana alderantzizkoa izan zelako. Adibidez, 1995 eta 2000. urteen bitartean, kanbio-tasen joeraren noranzkoa aldatzearen ondorioz, aberatsenen ratioa biztanleriaren ehuneko 10 pobreenarekin alderatuta (biztanleriaren arabera haztatutako herrialde arteko zifretan oinarritua), jaitxi egin zen kanbio-tasan oinarritutako konparaziorako, eta hazi, aldiz, erosteko ahalmenaren parekotasunean oinarritutako konparaziorako, alegia, aurreko urteetan zegoen eta desberdintasuna puztu nahi zutenek erabilitako erlazioaren kontrakoa.

Mendez aldatzerakoan, Nazioarteko Moneta Fondoa (NMF), hogeigarren menderako egindako balorazio oso itxaropentsua desberdintasunaren hazkundeak kutsatzen zuelako larrituta, bere Global Economic Outlookeko 2000ko alean bat-batean ohartu zen agian errenta ez dela ongizatea neurtzeko neurririk garrantzitsuen, eta Human Development Indexa erabiltzeko neurri hobea izan daitekeela.

UNDPk eta eztabaidako beste parte-hartzaile askok (horietako batzuk modu inozentean) modu liberalean erabiltzen dituzte zenbait estatistiko, nahiz eta ia denek (eurek barne) estatistiko horiek onartzen ez dituzten, garapenaren ongizate konparatiboaren neurri guztiz okerrekoak baitira. Horiek onartzeko arrazoi bakarra da, antza, horiek kuantitatiboki handiagoa den eta arin hazten den desberdintasuna erakusten dutela. Nazio Batuetako Estatistika batzordeko kideek hori egiteagatik kritikatu egin dituzte. Eta NMFk goستن du HDIk iradokitako konbergentzia, baina ez du aipatzen indize

hori eratzeko modua dela-eta (gehienez lor daitekeen maila dauka eta gorengo mugak dituzten aldagaietan dago oinarrituta, eta ia herrialde garatu guztiak muga horietatik hur daude) konbergentzia erakutsiko duela ia seguru. HDIan edozein aurrerabide, geldo zein azkar, konbergentzia moduan azaltzen da. Munduko desberdintasunari buruzko eztabaida garrantzitsuari, beraz, kalte handia egiten dio erakunde horiek egiten duten estatistikoen zorrotasunik gabeko erabilera oportunistak.

Norberaren ondorioei ondoen egokitzen zaizkion zifrak aukeratzeko joera ez da, jakina, nazioarteko burokrazien kontua soilik. Kanbio-tasan oinarritutako nazioarteko banaketaren estimazioek hain zabalkunde handia izateko arrazoia da itxuraz euskarria ematen dietela aurretik atera diren ondorioei, batez ere neoliberalismoak eta globalizazioak errentaren banaketa nabarmen txartzen dutela diotenari. Banaketa globalak oraintsu izan dituen joerak ezartzea oso zaila da eta datu-mota ezberdinen eztabaida nahikorik izan ez duen kalitatearen oso menpekoak dira. Baina azken hamarkadetan desberdintasunean izandako aldaketak nahiko arazo tribiala dira, desberdintasun horrek garai moderno osoan izan duen maila errealekin konparatuta. Errentaren banaketaren desberdintasuna munduan gaur egun guztira handiagoa da historiako beste edozein garaitan baino; eta handiagoa da mundua osatzen duten edozein herrialdetan –banaka hartuta– dagoen desberdintasuna baino. Horiek egitate garrantzitsu eta ukaezinak dira. Hori gizarte-bidegabekeria izugarriaren adierazpena dela sinesten dugunok ez genuke automatikoki ukatu behar gutxitzen ari den desberdintasunaren edozein frog, horrek gure argudioa ahuldu lezakeelako. Gure ardura ahalik eta kalkulu numeriko onek eta koherenteenak lortzea izan beharko litzateke, horiek erakusten dutena edozein izanda ere. Zorritzare, ziurra da berdintasunezko mundua ez dugunik eskura.

Bibliografia

- Atkinson, Anthony B. 1999, "Is Rising Income Inequality Inevitable? A Critique of the Transatlantic Consensus", *WIDER Annual Lectures 3*, Helsinki: Wider.
- Atkinson, Anthony B. and Andrea Brandolini 2001, "Promise and Pitfalls in the Use of "Secondary" Data-Sets: Income Inequality in OECD Countries as a Case Study", *Journal of Economic Literature*, Vol XXXIX, Iraila.
- Boltho, Andrea y Gianni Toniolo 1999, "Assessment: The Twentieth Century - achievements, failures, lessons", *Oxford Review of Economic Policy*, Vol. 15, No. 4, negua.
- Bourguignon, François and Christian Morrison 2001, "Inequality among world citizens: 1820-1990", argitaratu gabekoa, Otsaila.
- Crafts, Nicholas 2000, "Globalization and Growth in the Twentieth Century", *IMF Working Paper*, WP/00/44, Washington DC: FMI.
- Deaton, Angus 2001, "Counting the World's Poor: Problems and Possible Solutions" *The World Bank Research Observer*, vol 16 no.2, udazkena (125-147); baita Martin Ravallion-en (erreferentzia bera 148-156) eta T.N.Srinivasan-en (157-168) komentarioak.
- Deininger, Klaus and Lyn Squire 1996, "A new data set measuring income inequality", World Bank, (http://www.worldbank.org/html/rdmg/grwthweb/growth_t.htm).
- Dikhanov, Yuri and Michael Ward 2001, "Measuring the distribution of global income", Munduko Bankuaren azterketako agiria, argitaratu gabea.
- Firebaugh, Glenn 1999, "Empirics of World Income Inequality", *American Journal of Sociology* Vol 104, Number 6 Maiatza (1597-1630).
- Heston, Alan, Robert Summers and Bettina Aten 2001, *Penn World Table Version 6.1*, Center for International Comparisons at the University of Pennsylvania (CICUP), Abendua.
- International Monetary Fund, *World Economic Outlook*, Washington DC: IMF.
- Kanbur, Ravi 2001, "Economic Policy, Distribution and Poverty: the Nature of Disagreements", *World Development*, vol. 29, no. 6, 1083-1094.
- Jolly, Richard 1999, "Global Inequality", *Wider Angle*, Abendua.
- Lustig, Nora y Ravi Kanbur 1999, "Why is inequality back on the agenda" paper for Annual Bank Conference on Development Economics, Washington DC: World Bank, Apirila.
- Maddison, Angus 2001, *The World Economy: a millennial perspective*, OECD.
- Melchior, Arne 2001, "Global income inequality: beliefs, facts and unresolved issues", *World Economics*, Vol 2 No 3 Uztaila-Iraila.

- Melchior, Arne and Djetil Telle 2001, "Global Income Distribution 1965–98: Convergence and Marginalisation" *Forum for Development Studies* No 1.
- Melchior, Arne, Kjetil Telle and Genrik Wiig 2000, "Globalisation and Inequality: World Income Distribution and Living Standards, 1960–1998", Royal Norwegian Ministry of Foreign Affairs, Studies on Foreign Policy Issues, Report 6B.
- Merrill Lynch and Cap Gemini Ernst & Young 2002, *World Wealth Report 2002*, Interneteko agiria.
- Milanovic, Branko 2002, "True world income distribution, 1988 and 1993: First calculation based on household surveys alone", *Economic Journal* 112, Urtarrila.
- Milanovic, Branko 2002, "Worlds Apart": International and World Inequality 1950–2000, work in progress, February (obtainable from World Bank website, Inequality).
- Pritchett, Lant 1997, "Divergence, big time", *Journal of Economic Perspectives*, Vol. 11, N^o. 3, uda.
- O'Rourke, Kevin 2001, "Globalization and Inequality: Historical Trends", *NBER Working Paper* 8339, (<http://www.nber.org/papers/w8339>).
- Quah, D. 1996, "Twin Peaks: Growth and convergence in Models of Distribution Dynamics", *Economic Journal*, Uztaila.
- Sala-i-Martin, Xavier 2002, "The World Distribution of Income (estimated from individual country distributions)", *NBER Working Paper* 8933, (<http://www.nber.org/papers/w8933>).
- Sala-i-Martin, Xavier 2002, The Disturbing "Rise" of Global Income Inequality, *NBER Working Paper* 8904, (<http://www.nber.org/papers/w8904>).
- Schulz, T. Paul 1998, "Inequality in the distribution of personal income in the world: How it is changing and why", *Journal of Population Economics*, 11, pp. 307–344.
- Stewart, Frances and Albert Berry 1999, "Globalization, Liberalization and Inequality: expectations and experience" (in Andrew Hurrell and Ngaire Woods, *Inequality, globalization and World Politics*, Oxford: Oxford University Press.
- Summers, Robert and Alan Heston 1999, "The World Distribution of Well-being Dissected", in Alan Heston and Robert E. Lipsey (editoreak), *International and Interarea Comparisons of Income, Output, and Prices, NBER: Studies in Income and Wealth*, Volume 61.
- Sutcliffe, Bob 2001, *100 ways of seeing an unequal world*, London: Zed Books.
- UNDP 1999, *Human Development Report 1999*, Oxford: Oxford University Press.
- Wade, Robert 2001, "Global inequality: winners and losers", *The Economist*, Apirilaren 28a.
- Williamson, Jeffrey G. 1997, "Globalization and inequality: past and present", *World Bank Research Observer*, Volume 12, N^o. 2, Abuztua.
- Williamson, Jeffrey G. and Peter Lindhert 2001, "Does globalization make the world more unequal?", in Michael D. Bordo, Alan Taylor and Jeffrey G. Williamson (editors), *National Bureau of Economic Research, Globalization in Historical Perspective*, inprimategian da (baita NBER Working Paper N^o. 8228, 2001 bezala eskura ere).
- Wolf, Martin 2000, "The big lie of global inequality", *Financial Times*, Otsailaren 9a.
- World Bank 2001, "Income poverty: the latest global numbers", (<http://www.worldbank.org/poverty/data/trends/income.htm>).
- World Bank 2002a, *World Development Indicators 2002* online bertsioa, Washington DC: Munduko Bankua.
- World Bank 2002a, *World Development Indicators 2002* liburuko bertsioa, Washington DC: Munduko Bankua.

Eranskin oharra

Nire azterketa “garbia”n banaketaren estimazioen data zehatzak dituzten herrialdeak:			
	Lehen urtea	Bigarren urtea	Hirugarren urtea
Australia	79	90	94
Bangladesh	78	86	95/6
Brasil	80	89	98
Bulgaria	80	90	97
Kanada	79	90	94
Txina	80	90	98
Kolonbia	78	88	96
Costa Rica	81	89	97
Txekiar Errep./Txeko.	80	88	96
Dominikar Errep.	84	89	98
Frantzia	79	84	95
Grezia	81	88	93
Hungaria	77	89	98
India	77	90	97
Indonesia	80	90	99
Italia	80	89	95
Jamaika	75	90	00
Jordania	80	91	97
Korear Errep. (Heg.)	80	88	93
Malaysia	79	89	97
Mexiko	77	89	98
Maroko	84	91	98/9
Holanda	79	91	94
Nigeria	86	92	96/7
Norvegia	79	91	95
Pakistan	79	88	96/7
Panama	79	89	97
Polonia	80	90	98
Portugal	80	90	94/5
Errusiar Fed./SESB	80	89	98
Sri Lanka	80	90	95
Thailandia	75	90	98
Turkia	73	87	94
AEB	80	90	97
Venezuela	79	90	98
Munduko biztan. zatia	70	70	69
Munduko BPGaren zatia	61	63	67

Iturriak: Deininger and Squire, Munduko Bankua 2002b.

HEGOA –Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional– tiene como objetivo la promoción del desarrollo humano sostenible de los pueblos. Su misión es fomentar el conocimiento y la investigación de los problemas del desarrollo y la cooperación internacional, a través de los trabajos e investigaciones que realiza, así como contribuir a la sensibilización de la sociedad desde la perspectiva de la equidad y la solidaridad. Las áreas en que estructura su trabajo son: documentación, formación, sensibilización y educación para el desarrollo, asesoría e investigación. Cuenta con un Centro de Documentación especializado en temas de desarrollo y cooperación en su sede de Bilbao, y un Centro de Recursos Didácticos de educación para el desarrollo en Vitoria-Gasteiz.

CUADERNOS DE TRABAJO/LAN-KOADERNOAK es una colección destinada a difundir los trabajos realizados por sus colaboradores y colaboradoras, así como aquellos textos que por su interés ayuden a la mejor comprensión del desarrollo.

HEGOAk –Nazioarteko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua– herrien giza garapen jasangarria bultzatzea du helburu. Bere xedea garapen arazo eta nazioarteko elkarkidetzan ezagutza eta ikerketa bultzatzea da, egingiten dituen lan eta ikerketen bidez, eta gizartearen sentsibilizazioan eragitea berdintasun eta elkartasunaren ikuspegitik. Lana atal hauetan egituratzen du: dokumentazioa, formakuntza, garapenerako sentsibilizazioa eta heziketa, aholkularitza eta ikerkuntza. Garapen gaietan Dokumentazio Zentro espezializatu bat du Bilbon, eta garapen heziketarako Baliabide Didaktikoetarako Zentro bat Vitoria-Gasteizen.

CUADERNOS DE TRABAJO/LAN-KOADERNOAK bere kolaboratzaileek egingutako lanak zabaltzeko bilduma da, baita garapena hobeto ulertzeko lagungarri diren testuak hedatzeko ere.

Publicación
cofinanciada por:



COMISIÓN EUROPEA
DG Desarrollo